

Herririk Herri | 3

Udalak sei hilean erregulatu gura ditu gazteen lokalak Durangon



Berbaz | 10

B. Charro: "Elikaduran gaitza da urteetan barneratutako ohiturak aldatzea"

Kultura | 11

Ander Berrojalbiz Khantoria taldeko biolinista durangarragaz elkarriketa

KIROLA | 15

Garmendia otxandiarra historia egiten Mirandesen

Futbolari otxandiarrak Athleticen aurka jokatu du martitzenean, Bilbon

Kopako finalean sartzea lortzeko, azken txistua entzun arte duten guztia ematera doazela dio



Futbolari izateaz gainera, ingeniarietza ikasten dihardu Iñigo Garmendiak. Kepa Aginako

ABADIÑO | 2

Hotzari aurre eginez, feriazale ugari batu da San Blas Azokan

Baserrietako erakusleiko izan dira gaur San Blas Azokan batu dituzten abelburu eta produktuak. Aurtentzen, azokaren historia lantzen duen *Sanblasak begietan* liburua argitaratu dute.



Durango | 3

Udalbatzarrak Abasoloren indultua gaitzetsi du, aho batez

Iurreta | 6

Alkatea zabortegiko auzitik baztertzea eskatu dute

Elorrio | 4

Auzo-taxi zerbitzua martxan ipini dute asteon, euro bian

Berriz | 6

Neguko I. Bidezaintza Plana antolatzen dihardu udalak

Noiz arte jarraituko duzu...?

Zure ametsak geroko utziz, batetik bestera arineketan, lanean atsedetik hartu gabe, osasuna zaindu gabe, zuretzako astirik hartu gabe, benetan zer nahi duzun jakin gabe, zure burua maitatu gabe, gozatu gabe...



COACHING
saio bat
OPARI!

Aurretiko zita.
Oiz 6 behea **DURANGO**
94 603 06 74 **609 432 948**
info@elespejodelcoaching.es

elespejodelcoaching.es

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

ABADIÑO

San Blas eguna da gaur, feriazaleek gorritz seinalatua

Baserriko produktuak kalera dakartzate aurten ere nekazari eta abeltzainek, hotzari aurre eginez

Goizean goizetik eroan dituzte baserriarrek abeltzariak eta produktuak Abadiñoko Zelaieta auzora. Ez dira faltako animaliak, makineria, erroskillak eta bedekintutako kordelak; ezta jaia egiteko gogoia ere. Ganaduari dagokionez, 266 abeltzari dituzte 100 salgai ipini dituzte behi-haziendako 45, zaldi-haziendako 35 eta ardi-haziendako 20 eta beste 166 ikusgai; horietatik 54 herriko sei abeltzainek mugitu dituzte Trinkete aldeko gunera. Gainera, nekazaritzako 72 saltoki (Trinketean), eskulangintzako 22 (Txanporta kultur etxe ondoan), nekazaritzako makineriako 15 (Txanporta plazan eta Gaztañodi eta Aita Aureliano Letona kaleetan) eta landareak saltzeko 10 (Tornosolo kalean) egokitu dituzte. Arbaso elkartearen laguntzagaz bertaratu dira artisauak.

Ez dira faltako animaliak, makineria, erroskillak eta bedekintutako kordelak

Jaiaren osagarri, 34 saltoki daude banatuta San Trokaz eta Txanporta plazan, Zeletabe eta Gaztañodi kaleetan eta Ferialeku inguruan, erroskillak eta beste produktu batzuk saltzeko; zazpi txosna ere ipini dituzte Ferialekuan eta Solokoan.

Euskal Herriko nekazaritza eta ganadu azoka garrantzitsuenak dela esanez deskribatu du gaurkoa Jose Luis Navarro alkateak.

Azokaz gainera, idi-probak dira hitzordu esanguratsuenak, 17:00etan eta 22:00etan

Azokaren bueltakoa

Feriaren aitza festa ederra sortzen da urtero Abadiñon. Goizean txistulariak, umeentzako tailerrak, meza eta bertsolariak izan dira; baita herri-kirol jaialdia ere. Zelan ez, idi-probena izango da hitzordu esanguratsu bat, 17:00etako eta 22:00etako saioetan banatuta. Datozen egunetan ere jarraituko du jaiak, gaurko egun handiaren ondoren. ■ M. Onaindia.



Baserritarren eta herritarren elkargune izaten da otsailaren 3ko San Blas Azoka. Ana Domínguez

San Blas Azokaren historia aztertzen duen liburua



Abadiñoko Udalaren enkarguz Gerediaga elkarteak garatuta liburua da *Sanblasak begietan* izenekoa. Lorea Madina kazetariak eta Txelu Angoitiak argazkilariak gidatuta ondu dute otsailaren 3ko azoka bereziaren atzera begirakoa. Bi esparrutan banatu dute liburua. Batetik, Jon

Irazabalek orain 45 urte hasitako azterketa historiko batean oinarrituta, Madinak lau-bost hilabeteko ikerketa egin du dokumentazio eta elkarrizketekin. Bestetik, 40 argazkilariren 130 irudi elkartu ditu Angoitiak, horien artean zortzi abadiñarren idazlanak kokatuz; azokaren gaineko gomuta edo esperientziak dira guztiak.

Salgai ipiniko dute liburu berria, ekoizpen-kostuaren prezioan. ■ M.O.

Ez dute onartu Zarrabeitia presoaren "eskubideen aldeko" Bilduren mozioa

"Espetxera egingo duten martxaren garraio gastuak udalak bere gain hartzea" eskatu dute

Martitzenean burutu zuten ohiko bilkurako bigarren puntuan aurkeztu zuen Bilduk Eneko Zarrabeitia presoaren egoeragaz lotuta udalari hainbat konpromiso eskatzen dizkion mozioa. Bilduko bost zinegotziek alde eta Independenteen seiak kontra egin zuten; abstentitu egin zen, bestalde, EAJ.

Frantziar preso dagoen Eneko Zarrabeitia abadiñarraren egoerari lotuta, besteak beste, "babe-sa ematera Frantziako espetxera egingo duten martxan parte har-

Bilduko bost zinegotziek alde eta Independenteen seiak kontra egin zuten; abstentitu egin zen, bere aldetik, EAJ

tzen duten herritarren garraio gastuak udalak bere gain hartzea" eta "udalaren ordezkari batek espetxeko zuzendaritzari Zarrabeitiri ezarritako 60 eguneko zigorra baliogabetzea eskatzen duen idatzia helaraztea" eskatu zuen Bilduren mozioa.

Jose Luis Navarro alkateak dispersioak presoen familiak ere zigortzen dituela azpimarratu eta "presoek dagokien kondena etxetik gertu betearaztea" defendatu arren, Bilduren mozioaren kontra bozkatu zuten talde Independenteko sei ordezkariak.

"Mozioko aldarrikapenekin ados gaude, baina ez formulazioagaz", adierazi zuen Etxebarria bozeramaile jeltzaleak. Abstentitu egin zen EAJ. ■ I.E.

ATXONDO

Elur eta izotzari aurre egiteko gatz zakuak eskuragarri

Datozen egunetarako iragarrita dagoen hotz siberiarrak errepidean, baserri bideetan zein inguruetan eragin ditzakeen lurzoru izoztu edo elurtuei aurre egiteko gatz zakuak banatuko ditu Atxondoko Udalak. Jakinarazi dutenez, zakuak Apatako Maxisuen Etxean egongo dira eskuragarri, denboraleak irauten duen egun denetan. Zakuak jasotzeko ordutegia ere zehaztu dute: 08:00etatik 15:00etara.

Hala ere, interesatuek lehengo udaletxera deitu beharko dute (94 682 10 09) eta bertako langileekin hitzordua ipini, ondoren zakuak jaso ditzaten. Baserri edo etxe bakoitzak jaso dezakeen kopurua ere mugatua da, ahalik eta eskari gehienak asetzeko: zaku bi jaso daitezke bizileku bakoitzeko. ■ J.D.

ZALDIBAR

Jubilatuen tabernaren gestioa, lehiaketara

Udalagaz ez zegoen kontraturik sinatuta, eta ordezkariak batzarra egin dute asteon nagusiekin

Zaldibarko Udalak lehiaketa publiko baterako du jubilatuen tabernako kudeaketa. Orain arte ez da egon kudeatzaileen eta administrazioaren arteko kontraturik, eta egoera hori formalizatzea gura dute udal arduradunek. "Taberna publikoa denez, lehiaketara atera behar du", adierazi digu Arantza Baigorri alkateak.

70 lagunetik gora batu ziren batzarrean, jubilatuen eta udalaren ordezkariak gainera

Antza denez, eztabaida sortu da nagusien artean lokalaren etorkizunaren gainean, eta gauzak argitzeko helburuz, batzarra egin zuten eguaztenean bi aldeek.

70 lagunetik gora batu ziren; jubilatuen juntakoak, Baigorri alkatea eta Carmen Sampedro alkateordea. Batzarrean udal ordezkariak azaldu zuten ez dela euren helburua taberna ixtea, batzuek uste izan duten eran, egoera legez-tatzea baizik.

BBKren osaketa

Udalbatzarrek baietza eman dio Iurreta, Berriz, Otxandio, Atxondo, Ermua eta Zarautzegaz BBKren osaketarako hauteskunde-elkarte osatzeari; asanbladaren %50 berritu behar du kutzak. Iurretan ere onartu dute proposamena; ez, ordea, Berrizen.

Alkateak dekretu bidez eroan zuen gaia joan zen asteko bilkurara, eta aho batez onetsi zuten zinegotziek. ■ M.O.



DURANGO

Sei hileko epean erregulatu gura dituzte gazteen lokalak

Lokalen erabilera arautzeko ordenantza onartu dute EAJK, PSE-EEK eta PPK



Lokalen erabilera arautzeko ordenantza iazko otsailan hasi ziren lantzen. Kepa Aginako

Asteon onartutako ordenantza araberaren arabera, erantzukizun zibileko aseguru eta suteen prebentzioarako sistema eduki beharko dute lokalak, eta jabeek lokalen egoera erregulartzeko sei hilabeteren epean datuak eta agiriak aurkeztu beharko dituzte udaletxean. EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin onartu dute ordenantza; Bilduk eta Aralarrek kontra bozkatu dute.

“Gazteen segurtasuna eta auzokideen lasaitasuna” lortzeko ordenantza beharrezkoa dela nabarmendu dute EAJK eta PSE-

EEK. Alderdi Popularrak, batzar askoren ondoren, pozik hartu du ordenantza plenora eroan izana.

Aralarren esanetan, “arazoak ez dira ordenantzagaz konponduko”. Bilduren iritziz, berriz, “lokalak ezagutu barik” egindako ordenantza da osotutakoa, eta egokiagoa litzateke “auzokideen eta gazteen eztabaidatik” sortzea. Bi

Erantzukizun zibileko aseguru eta suteen prebentzioarako sistema eduki beharko dute

alderdientzat premiazkoa da gazteen aisialdi beharrei buruz hausnartzea. EAJ hausnarketaren alde agertu da, baina lokalak “errealitate ukazina” direla azaldu du. Sozialistek suteen prebentzioarako sistemaren garrantzia nabarmendu dute.

Orduategia

Ordenantzaren arabera, lokalak 22:30ean itxi beharko dira. Bariku, zapatu eta jai bezperetan 23:30ean; udan 23:00etan arte eta Sanfaustoetan, Aste Santuan, Gabonetan eta inauterietan 00:30ean. ■ A.U.

EAJK eta PPK ordezkarietako akordioari buruz “ateak beti zabalik” egon direla eta “demokrazian akordioetara heltzea zilegi” dela azpimarratu dute: “Hiru kutxen administrazio kontseiluen erabakia izan da”.

Bilduk, PSE-EEK eta Aralarrek kontsentsu “zabalagoa” izatea gurako luketela azaldu dute. Euren gogoia “proportzionaltasun printzipioa defendatzea” dela nabarmendu dute. ■ A.U.

Kutxabanken kontseiluko ordezkarietza eztabaidagai

Ordezkaritza “orekatua” eskatu dute mozio bidez

Kutxabanken Administrazio Kontseiluaren osaketa dela eta, mozioa aurkeztu du Bilduk. Bertan, besteak beste, kontseilua bi alderdik osatu izana salatzen, kontsentsua

lortu eta gizartearen “ordezkarietza zabal, orekatu eta proportzionala” edukitzea eskatzen, eta kideen eta udalen ordezkarietza murriztu izana salatzen dute.

Aho batez gaitzetsi dute Abasoloren indultua udalbatzan

Bilgune Feministak helarazitako mozioa onartu dute, sexu-erasoen “inpunitatea” salatuz

“Emakume eta gizonen berdintasunerako lorpenean atzerakada suposatzen duen erabakia” delako, aho batez gaitzetsi dute udalbatzan Paul Abasolo futbolari durangarrari sexu erasoengatik jasotako zigorraren indultu partziala. Hasieran indultua atzera botatzeko eskatu gura zuten, baina ez dago legezko modurik horretarako. Azkenean gaitzespena eskatu du Bilduk Bilgune Feministaren izenean.

Bilduko Norone Bizkarrak garrantzitsua iritzi dio udalak indultua aho batez gaitzesteari. Indultuagaz sexu erasoak “inpunitatea” eman zaiela kritikatu du Aralarreko Dani Maeztuk, eta salatu du indultuan ez dela ikusten Abasolori “zer arrazoigatik eman zaion”. Ildo beretik, EAJKo

Goiztidi Diezen iritziz, indultuagaz “herriari ematen zaion mezua larria da”, eta sexu erasoaren aurrean tolerantziarik ez dela onartu behar aldarrikatu du.

PSE-EEren mozioa

Pilar Rios PSE-EEko bozeramaileak ere gogor kritikatu du indultua, eta beste mozio bat aurkeztu du, Abasolori arindutako zigorra kartzelan betearaztea eskatu dezan fiskaltzak. Mozioa ez da onartu; EAJK kontra bozkatu du, eta PP, Aralar eta Bildu abstenitu egin dira. Bilduk eta EAJK adierazi dute mozioaren alde bozkatzeko “indultua onartzea” litzatekeela. Aralarrek azaldu du indulturik ez egotea gurako luketela; hala ere “zigor hori kartzelan betetzea” ere gura dutela diote. ■ A.U.

Sei gauzainek herria zaintzen jardungo dute arratsalde eta gauez

Laster formazioa jasoko dute, eta Durangoko “eremu beltzak” zainduko dituzte batez ere

Langabezia denbora luzean egondako sei durangar zaindari lanetan hasiko dira laster Durangon. Arratsalde eta gaueko txandatan jardungo dute, Durangoko kaleak eta, batez ere, Hiri Debeatuaren Mapan jasotako “eremu beltzak” zaintzen.

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza bati esker jardungo dute sei gauzainek beharrean. Enplegu

guzaintzeko jaurlaritzaren *Euskadi+* programaren diru laguntza jaso du udalak.

Kaleak zaintzen jardungo duten beharginen formazioa jasoko dute laster, eta udaltzainen laguntza izango dute euren lanean. Sei emakume izango dira, eurretatik lau 46 eta 52 urte bitartekoak.

Durangoko PSE-EEK eman du egitasmoaren berri. Pilar Rios zinegotzi sozialistak nabarmendu duenez, “krisi garaiotan garrantzitsuak diren bi auziri heldu gura zaie ekimenagaz: enplegu politikei eta herritarren segurtasunari”. ■ A.U.

Langabezia denbora luzean egondako durangarrek jardungo dute kaleak zaintzen



OTSAILAK 10
ZUZENKO MUSIKA afalorduan, hileko 2. barikuro legez

OTSAILAK 11
San Valentin afaria, DJ-arekin



Goiuria auzoa 16 - 48215 Iurreta (Bizkaia) • Tel.: 94 681 08 86 • www.asadorgoiuria.com

DURANGO



Albertiako omenaldian, 2005ean, domina jasota. Iñaki Irazabal

Bautista Uriberi omenaldia egingo diote domekan

Urtarrilaren 25ean hil zen EAE-ANVko gudari eta militante izandako durangarra, 93 urte zeuzkala

Intxaurre elkartearen aurrean, Balbino Garitaonandia enparantzan, omenduko dute domeka honetan Bautista Uribe. Eguerdiko 13:00etan hasiko da ekitaldia. Leku esanguratsua da Intxaurre; Uriberen emazte Benita Mañarikua eta sei seme-alabak bertan jaio ziren, eta bikoteak Ezker Aertzaleari eskaini zion, Herriko Taberna sortzeko. 25 urte bete berri ditu Intxaurrek, eta iaizko ekaineko urtemuga jaialdian ere jaso zuen omena Uribek.

Gerra Zibilean EAE-ANVren Eusko Indarra batailoian ekin zion borrokari Uribek

Gerra Zibilean EAE-ANVren Eusko Indarra batailoian ekin zion borrokari Uribek. Loiola, Deba,

Lekeitio eta Albertiako frenteeetan ibili zen, besteak beste. Anaia galdu zuen Zornotzako borroka batean, eta berak eman zion lur, lepoan hartu ondoren. 1937an Santonñan kartzelatu, eta Burgos, Miranda, Elizondo eta Madrileko espetxeetatik igaro zen; langileen batailoira behartu zuten. Diktadura amaitu arte, klandestinitatean jarraitu zuen beharrez; gerora ere ez zuen etenik egin militantzian.

EAE-ANV alderdiaren ilegalizazio bi ezagutu zituen: diktadura eta alderdien legearena. 2007ko udal hauteskundeetarako babesa agertu zion alderdiari, "ANVkoa nintzen, naiz eta hil arte izango naiz" aldarrikatuz. Bizimodu gogorra ezagutu arren, ez zion idealei ekarpena egiteari utzi. Ekaineko omenaldian batutakoak ere eskumuturra jasota agurtu zituen. ■ M.Onandia.

MALLABIA

Eskolako leihoak eta argiteria aldatu gura dituzte

Mallabiko Udala lanean hasi da eskolako obrak amaitzeko gelditzen den zatian. Lanok finantzatzeko inbertsioaren %60 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bere gain hartuko du. Eskolako leiho guztiak konpontzea da udalaren asmoa.

Leihoak konpontzeko inbertsioaren %60 Eusko Jaurlaritzak ordainduko du

Udan hasi gura dituzte lanok, ikasturtea amaitzerakoan, eskolako jarduna ez oztopatzeko. Aurreko urteetan ere udan egin dituzte konponketak.

Argiteria

Eskolako argiteria aldatzeko beste diru-laguntza bat eskatzeko asmoa du udalak. Agenda 21eko irizpideei jarraituz, kontsumo txikiko argiztapena ipini gura dute eskola barruan zein inguruan, Mila Mondragon alkateak azaldu duenez. ■ J.G.

ELORRIO

Gazte-lokalak ikuskatzen hasi da udala asteen

Gazteen segurtasuna eta auzotarrekiko bizikidetzaren bermatzea dute helburu azterketa honegaz

Udal teknikariek eta Gazteria arloko dinamizatzaileak asteen bisitatu dituzte lehenengo lonjak, udal ordenantzara egokitzen direla egiaztatzeko. "Udalaren helburua ez da gazteen lokalak ixtea, horiek

bizikidetzaren bermatu nahi dugu; baita gazteen segurtasuna ere, gertatu ahal diren arriskuen aurrean", azpimarratu du Ana Otadui alkate jeltzaleak. Edozelan ere, zerbitzu teknikoek ebaluazio txostena amaitu ondoren jazo daiteke udala lokalak bat ixteko beharrraren aurrean aurkitzea ere.

Ordenantza 2010eko abenduan onartu zuten, eta jabe zein errentariek urtebete izan dute horretara egokitzeko. Gutxiengo baldintzen artean daude komun itxia, su itzalguiluak, larrialdiko argiteria eta erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea. ■ M.O.

Ordenantza 2010ean onartu zuten, eta urtebete izan dute horretara egokitzeko

arautegira egokitzea baizik. Neurri horregaz lokalak eta horiek dauden eraikinetan burutzen diren beste erabilpenen arteko

Bilduren batzar informatiboa, animalien ordenantzaz

Datorren martitzenerako, hilaren 7rako, animalien ordenantzaren gaineko bigarren batzar informatibo eta parte-hartzailea deitu du Elorrioko Bilduk. Arriola kultur aretoan ipini dute zita, arratsaldeko 19:30ean.

Zehazki, txakurren atala aztertuko dute, "kalean kexa eta kezka gehien sortzen duen gaia delako". Kezka horregatik diote gaia parte-hartzearen bidez lantzekoa dela; azaroan egin zuten lehenengo bilkura, herritarren iritzia jasoz. Martitzenean ordenantzarako proposamena erango dute, eta azken ekarpenak ere jasoko dituzte. ■ M.O.

Auzo-taxi zerbitzua martxan dago, euro bian

'Eskaripeko garraioa' izeneko zerbitzua auzoak erdiguneagaz lotzera dator, proba epea amaituta

Azaroan erabaki zuen udalak garraio zerbitzu berria proba fasean ezartzea. "Herriko auzotar batzuen artean zerbitzua jasotzeko eskaera dagoela ikusi dugu. Beraz, zerbitzua bideragarria dela ikusi eta gero, behin betiko martxan jartzea erabaki dugu", azaldu du Ana Otadui alkateak. Zerbitzu zabala den arren, batez ere, mugikortasun arazoak dituzten

Erabiltzaileek 94 682 00 40 zenbakira deitu beharko dute garraioa hartu gura dutenean

nagusiei eta ibilgailu propioa ez dutenei zuzenduta dago.

Txartela eskatu behar da

Euro biko kostua izango du bidaiak; udalak taxilarietara egingo dako hitzarmenaren bitartez kubrituko dute aldea. Interesdunek, udaletxean erabiltzaile txartel bat jaso beharko dute lehenengo. Gero, garraioa hartu gura duten bakoitzean, 94 682 00 40 zenbakira deituko dute.

Astegunetan 07:30etik 20:00etara funtzionatuko du zerbitzuak, eta zapatuetan 09:00etik 14:00etara. ■ M.O.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan
saltsan.com

goizeko 08:00etatik
gaueko 21:00etara
zabalik
clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetorre 2. blokea C behea - 48200 Durango - 94 681 99 51

CENTRAL FORESTAL
42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Smurfit Kappa
Nervión
Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen
PEFC FSC
ziurtagiriaren bitartez

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



 **2 URTE**
1000 b/min
6 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF 1106
250 € 

 **2 URTE**
1200 b/min
6 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA 3F2612
315 € 

 **2 URTE**
1200 b/min
6 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAE2461EE
345 € 

 **2 URTE**
1200 b/min
7 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA EWP127100
360 € 

 **2 URTE**
1200 b/min
7 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-72750
385 € **AEG**

 **2 URTE**
8 kg
A+ Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA SF-84CF
390 € 

 **2 URTE**
8 kg
A+ Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA T75280
450 € **AEG**

 **2 URTE**
A+ Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA 2LF-013SX
395 € 

 **2 URTE**
A++ Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA ES26
435 € 

 **2 URTE**
A+ Sailkapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA 6H-760AX
460 € **AEG**

 **A** Sailkapen energetikoa
INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220
LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M
950 € **AEG**

 **2 URTE**
1440 X
545 X
600 X
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA AD1442
280 € 

 **2 URTE**
1850 X
600 X
600 X
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA AC185NF
410 € 

 **2 URTE**
2000 X
600 X
600 X
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KGN 39A126
695 € 

 **2 URTE**
ROOMBA 521
320 € 

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. **MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

 **ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA**
 **MERKEFAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA**
 **GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU**
 **+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI**

DIURRETA



Iazko udan Lukupeko Troka eta Luku Txiki lurra botatzeko erabili zirela salatu dute. Goiuriko Kofradia

Alkatea zabortegiko auzitik baztertzea eskatu dute

Iñaki Totorikaguena horretan ez dela "inpartziala" dio Goiuriko Kofradiak

Iñaki Totorikaguena Goiuriko Lukupeko Troka eta Luku-Txiki ibarbideak lurrez betetzeko jarduerarako eta obretarako lizentzia (2010koa) espedientetik baztertzea eskatu du Goiuriko kofradiak "partziala" dela iritzita, eta egitekoen ardua udalbatzak hartzea proposatu dute. Alkate egon ez zen bilkuran, eskaria tramitera onartu eta gero, orain, bi aldeek euren argudioak eman beharko dituzte. 2011ko ekainean eta uztaillean lizentziarik barik ehunka kamioien edukia isuri zutela dio-

te, sarbide-pistaren "legez kanpoko" lanen eraginez 2009an izandako lur-jausia konpontzeko lortutako baimena aprobetxatuta; 2006tik itxita zegoen zabortegia. Jarduera ez zutela eten salatu dute, ezta zehapen espediente agindu ere: "Probak ukatu (Udaltzaingoa-ren argazkiak barne) eta jarduerarik ez zela zioen udal arkitektoaren txostena onartuz". Inputatuta dagoen Jose Martin Etxebarria alkate ohiaren defentsa udalak sustatu eta ordaintzeko agindua eman duela ere badiot-

te, eta Totorikaguena orduan "legez kanpoko egoeraren jakitun" zela: "alkatearen ordeko izan zen, eta Hirigintza Saileko arduradun legez kanpoko isuriak egin zirenean". "Zentzugabeko" eskaria Iurretako EAJk eskaria "zentzugabea" dela dio, "babesa" agertuz alkateari. Kudeaketa "gardena eta legezkoa" dela diote. "Alkatearen izen ona kaltetzea eta administrazio espediente atzeratzea gura duten gertakari faltsuengatik kezka eta arbuioia" agertu dute. ■ A.B.

DI MAÑARIA

Frontoiaren erabilera arautegia berriztuko dute

Tasen zenbatekoa eta ordutegiak eguneratu gura dituzte, eta udalak kudeatu ditzala diru-kontuak

Frontoiaren erabilera-araudia berriztekotan dihardu Bilduko gobernu taldeak. Pilota eskolagaz horrela adostuta, aurrerantzean udalak kudeatuko ditu zuzenean frontoi erabiltzeagatik tasaketa diru-kontuak; horrela proposatu zuten gaiaren inguruan abenduan burutu zuten foroan. Herritarren artean "frontoi erabiltzeko lehentasuna berma-

tuta ez dagoen sentsazioa" zabaldu dela ohartuta ekin diote tasen zenbatekoa, ordutegiak eta abarrez zehazten dituen araudia aldatzea helburu duen prozesuari.

Hil honetan edo martxoan, herritarrek abenduko foro tematikoan egindako ekarpenak aztertuko eta araua diseinatzen has-teko batzarra deituko dute.

Endika Jaio alkatearen berbetan, mañariarrei eta kanpotarrei tasa ezberdinak ezartzea, ordutegia finkatu eta jakinaraztea, "alokairu aukera hobeto arautzea", herritarrei eta pilota eskolari lehentasuna ematea, dira gobernuaren asmoak. ■ I.E.

Hil honetan edo martxoan, abenduko herritarren foroko ekarpenak aztertuko dituzte

DI ZURTZA

Garauntzan etxebizitzak eraiki ahal izateko tramitea

Udalak etxebizitzak eraiki gura dituen Garauntzako zonaldea "babesgune akustiko berezi" izendatzeko eskatu du Bizkaiko Aldundiak, eta joan zen astean burutu zuten plenoan eman zioten bide klasifikazio hori garatzeko tramitazioari: zaratari buruzko 37/2003

legearen 25. artikulua agintzen duenaren arabera, zonalde berezi izendatzeko espedienteari ekin zioten, Bilduko udal gobernuko eta EAJko zinegotzien aldeko botoekin. Horren ondoren, etxebizitzak eraiki gura dituzten Garauntzako inguru horretako zarataren neurrak burutuko dute. 2011ko urriaren 10an argitaratutako ingurumen inpaktua-ren txostena betearazteak dakar ahotan darabilgunako neurriak hartzea: frontoi aldameneko lursail horiek "babesgune akustiko berezi" izendatzea. ■ I.E.

DI OTXANDIO

Mainerrotarako sarrera mugatuko dute aurten

EAJ abstenitu egin da aurrekontuen bozketan

Bilduren aldeko sei botogaz eta EAJren bi abstentzioagaz onartu dituzte 2012ko aurrekontuak. Aurten 1.392.789 euroko diru sarre-rak daude aurreikusita, eta gastuak 1.272.695 eurokoak dira, Beraz, 120.000 inguru geratzen dira inbertsioetarako. Urtetik urtera gastuak diru sarreraren mailatik gero

eta gertuago daudela-eta, EAJk "gastuen doiketa beharra" adierazi zuen. Bildu bat etorri zen EAJk adierazitakoagaz, eta aurten ere gastuak doitzen ahalegindu dire-la azaldu zuen Santi Uribe alkateak, beti ere ez ohiko gastuak sortu daitezkeen eremuetan malgutasunez jokatzu.

Aurtengo inbertsio nagusien artean erresidentzia ondoko etxearen erosketa dago. Ordainketa hainbat urtetan gauzatuko da, epeka. Aurten 25.200 euroko atala gorde dute horretarako. Iturrizarreko parkina egiteko eta Mainerrota alderako sarrera mugatzeko lanak egiteko 44.000 euro gorde dituzte. Proiektu hau ez dago lehentasunen artean, baina 177.000 euroko diru laguntza lortu dutenez aurrera egingo dute. Egin asmo duten anbulatorio berriaren harira, 2012an exekuzio proiektua idatziko dute. Azkenik, Berdintasun Plana osatuko 8.000 euro gorde dituzte. ■ J.D.

DI BERRIZ

Neguko I. Bidezaintza Plana osatzen dabil udala

Elurteetarako garbiketarako antolatzea gura dute

Berrizko Udala Neguko I. Bidezaintza Plana lantzen dabil, asteon adierazi duenez. Horren baitan, auzoetan bizi diren eta mediku edo osasun zainzetarako mugikortasun arazoak dituzten berriztarren zerrenda egin gura dute. Elurte kasuetako arazoan aurrean garbi-

ketak lehentasun mailaren arabera antolatzeko helburuz osatuko dute zerrenda hori. Elurra kentzeko pala eta gatza barreiatzeko gailu berriak dituzte eskura.

Izena emateko Ezaugarri horien artean kokatzen diren bizilagunei izena ematea eskatu die udalak. Horretarako, telefono zenbaki hauek ipini dituzte herritarren eskura: 94 682 40 36 eta 94 682 45 84; posta elektronikoz ere eman daiteke izena, idezaintza@berriz.org helbidera datuak bidaliz. ■ M.O.

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

HOBETUZ
Fondazioa Viena para la Formación Profesional Continua
Langilean Prestakuntza Berria

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua

EUSKO JAURLANITZA GOBERNO VASCO
EUSKAL GOBIERNOA
GOVERNMENT OF BASQUE COUNTRY

DOAKO IKASTAROAK

Langileentzako eta langabetuentzako

PINTXOAK ETA LAPIKOKOA (KAZOLATXOAK) PRESTATZEKO ERAK

Datak: 2012 martxoaren 5etik 26ra arte
Ordu kopurua: 40
Ordutegia: 18:00etatik 21:00ak arte, astelehenetik ostegunera
Tokia: Durangaldeko Behargintza
Izena emateko ezkeneko eguna: 2012ko otsailaren 20

Oharra: Ikastaroko partehartzea mugatua da (langabetuak gehienez %40)

Durangaldeko Behargintza

Laubideta, 6 Durango tf: **94 623 25 22**
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com



Durungaldean labor

Garoñako zentralaren kontrako mozioa onartu dute Otxandion

Udalbatzak aho batez onartutako mozio horretan, Garoñako zentral nuklearraren bizitza luzatzeak konpainia elektrikoaren interes ekonomikoekiko mesedemoduan baino ezin direla ulertu azpimarratu dute, eta energia iturri berriztagarrien aldeko apustua egin dute. Horrela, besteak beste, gaur egungo energia kontsumo maila birplanteatzeko beharra azpimarratu dute mozioan.

UGT sindikatuko Damaso Casado gaur Durangon

Gaur, otsailaren 3an, Durangoko UGTren egoitzan Damaso Casado UGT-Euskadiko zuzendaria egongo da, 12:45etik aurrera. Durungaldeko metalaren arloan duen pisua kontuan hartuta, Bizkaian arlo horretako hitzarmenak zertan diren azalduko du eta Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ere izango du aztergai.

Gaizka Zabarteren liburu aurkezpena

Otsailaren 9an, 19:00etan, Gaizka Zabarterek *Zaharrak ez zuen hil nahi* liburu aurkeztuko du Zaldibarko Liburutegian. Josu izeneko maisua da protagonista, hainbat galderari aurre egin beharko diona ehorzleak aspaldi hildako aitari buruz berba egiteko deitu ondoren.

Greatest Hits-en parte hartzeko deialdia

Aurten Greatest Hits musika jaialdia antolatuko dute, eta otsailaren 9an, Plateruena kafe antzokian, jaialdian parte hartu gura dutenentzako hitzordua ipini dute, arratsaldeko 19:30ean. Eskualdeko taldeek musika talde ezagunen abestien bertsioak egiten dituzte jaialdi horretan.

DURANGALDEA

Berriztar bi HABEko zozketaren irabazle

Udal Euskaltegian iPad bat eta HABEko materiala jaso dituzte Iñaki Uribe zuzendariaren eskutik

Durangoko Azokan HABEko egindako zozketan, 1.800 parte-hartzailearen artean berriztar bik lortu dituzte lehenengo eta bigarren sariak; Olga Marcosek iPad bat eta HABEko materiala jaso du eta Jon Zinkunegi HABEko materiala. Durangoko Udal Euskaltegian jaso dituzte sariak, Iñaki Uribe HABEko zuzendariaren eskutik.

Sari banaketa 25 urte bete berri dituen euskaltegia bisitatzeko aprobetxatu du Uribe, eta bisitan Durangon euskaltegiaren matrikulatuta dauden datuak eman dituzte.

Durangoko Udaleko 50 langilek euskarazko trebatze tailerrak hasi dituzte

Durangon 338 heldu dabil ikasturte honetan euskaraz ikasten; 236 udal euskaltegian eta 102 AEKn. Ikasleen perfila azkeneko urteotan zahartu egin dela nabarmendu du euskaltegiko zuzendari Maite Eubak: "36 eta 45 urte artekoak dira, gehienak emakumeak". Aurten udaleko langileentzako trebatze tailerrak hasi dituzte; 50 beharginek jarduten dute tailerrotan. ■ A.Ugalde



Olga Marcos eta Jon Zinkunegi HABEkoen sariak jasotzen.

Santa Ageda koplak kantatzen irtengo dute bihar, neguko giro hotza epeltzeko

Durungaldeko hainbat herritarrek irtengo dute, urtero legez, koplak kantuan

Giro hotzari aurre eginez eta usadioari eutsiz, Santa Ageda koplak abestera irtengo dute, zapatuan, Durungaldean ere. Eskualdeko txoko eta bazterrek epelduko dituzte koplaz koplak.

Mañariarrak izango dira koplakantariarik goiztiarrenak, Santa Ageda bezperaz: 08:45ean egin dute hitzordua plazan, eta batutako dirua Saharara bidaltzeko janaria erosteko erabiliko dute. Iurretan, berriz, 10:00etan gera-

Mañaria, Mallabia eta Iurretan goizean jardungo dute auzorik auzo koplak abesten

Durango, Zaldibar, Atxondo, Elorrio, Berriz eta Abadiñon ere batuko dira taldeak

tu dira Aita San Migel plazan, eta Mallabian 11:30ean Petrilean batuko dira: Mendibil abesbatzak baserriaz baserri egingo du kantuan iluntzera arte.

Arratsaldez ere irtengo dute Atxondon 14:30ean elkartuko dira kantariak —batutako dirua Caritsera bideratuko dute— eta Elorrian ere bai: 18:30ean egin du hitzordua Lagun Tokin, Iturritzorok elkartear-teak.

Durangon Orfeoak abestuko ditu Santa Ageda koplak, bihar. Kili-kolo aurretik abiatuko dira 18:30ean, eta Klarisen komentuan, Andra Marian, Ezkurdiko arkupeetan, Plateruen plazan eta Goienkalen abestuko dute.

Berriztarrak 18:00etan hasiko dira kantuan; mojen komentu aurrean egin dute hitzordua —batutako dirua euskal preso senideei laguntzeko erabiliko dute—. Zaldibarren 17:30ean abiatuko dira Koralko elkartetik. Abadiñon, azkenik, Done Zazpik abesbatzak abestuko ditu Santa Ageda koplak kalez kale; iluntzeko 19:30ean hasita izango da. Otxandion Oihandik abesbatza baserrietatik ibiliko da lehenengo eta auzogunetik gero. Ondoren, elkarrekin bazkalduko dute. ■ A.B.

GARAI

Hondakin guneak berritzeko asmoa du udalak

Udalak diru-laguntza eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari hirihondakinentzako guneak eraberritzeko. Tokiko Agenda 21aren baitan, 101.593 euroko aurrekontua dauka egitasmoak, udal ordezkariek azaldu dutenez. Zazpi gune izango dira, auzoen sarreretan egokitutakoak. Zaborra batzen duen kamioia, honela, ez da sartu beharko auzoetan zehar. Momoition eta Aiartzan birziklitzeko edukiontzia ere ipiniko dituzte. ■ M.O.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

- Goi Eskola Politeknikoa
Arrasate OTSAILAK 4 larunbata, 10:30
- Enpresagintza Fakultatea
Oñati OTSAILAK 18 larunbata, 11:00
- Irun OTSAILAK 23 osteguna, 18:00
- Gastronomia Zientzien Fakultatea
Donostia OTSAILAK 16 osteguna, 18:00



BERBAZ >

“Anorexia eta bulimia kasuetan inguruak kontrolatu behar du gaixotasuna, ez kontrara”

Datorren eguaztenean elikadura jokaeren nahastei buruzko ikastaroa hasiko du Abadiñoako Errota kultur etxean



Begoña Charro •

- ACABE anorexia eta bulimiaren kontrako elkarteko psikologoa
- Otsailaren 8an, 15ean eta 22an emango ditu hitzaldiak
- Informazioa: www.acabe.net

“Ez da sekula gaixoa bakartu behar; horrek gaixotasuna indartzen du”

gara asteen, eta gurasoak gero egunero egon behar dira eurekin. Psikologikoki gurasoak prest egon behar dira; inguruak kontrolatu behar du gaixotasuna, eta ez gaixotasunak inguruak. Familiaren implikazioa oso garrantzitsua da, eta beharrezkoa da gurasoek laguntza eskatzea eta profesionalengana jotzea.

Datorren eguaztenean hasita hiru eguaztenean, elikadura jokaeren nahasteen gaineko hitzaldiak eskainiko ditu Begoña Charro psikologoa Abadiñoako Errota kultur etxean. ACABE anorexia eta bulimiaren kontrako elkartearen berri emango du, eta gaixotasun horien gaineko ideia batzuk azalduko ditu hitzaldiotan.

Elikadura jokaeren nahasteetan kasu bakoitza mundu bat izango da, baina badaude orokortu daitezkeen ezaugarriak? Nahaste asko daude, baina gehien ematen direnak anorexia eta bulimia direnez, horietan sakonduko dugu. Ezaugarri orokor batzuk badaude: Anorexiaren kasuan, adibidez, oso perfekzionistak izaten dira, kirola asko gustatzen zaie, nota oso onak ateratzen dituzte... Kanpotik seme-alaba “idealak” direla esan genezake, baina barruan dute gaixotasuna. Bulimia dutenak normalean desorganizatuak izaten dira, inpulsiboak, fisikoki ez da detektatzen hain arin, ez dutelako zertan argal egon...

Umure aldaketak izaten dituzte, eta etxean konbibentzia arazoak. Anorexiaren kasuan, esan genezake eurek dutela “kontrola”, eta bulimiagaz kontrako da; egoerak ihes egiten die eskuetatik. Batzutan faseak egoten dira batetik bestera, baina nik uste dut, nahiz eta faseak izan, perfilagaz argi ikusten dela anorexia edo bulimia den.

Anorexia edo bulimia daukazu-la onartzea pauso garrantzitsua izango da.

Niretzat hori da pausorik gaitzena. Pertsona bakoitza desberdina da, eta adinaren arabera ere gauzak asko aldatzen dira; ez da berdina 14 urtegeza edo 30 urtegeza kontsultara etortzea. Gaixotasunagaz urte askoan bizi direnek onartuta dute gaixotasuna daukatela, baina barneratuta dituzten ohiturak kentzea gaitza da. Denbora gutxian barneratuta-

ko ohiturak arinago aldatzen dira normalean.

Zer pauso ematen dira diagnostikatu eta gero?

Lehenengo, elkartera heltzen direnean, psikologoekin jartzten dira kontaktuan. Osasun zentrorra bidaltzen ditugu, eta handik bolante bat eskatzen da, psikiatra batez hartu emana hasteko espezializatutako osasun zentroan. Ospitale bakoitzean espezializatutako psikiatra bat dago. Psikiatra eta psikologoak koordinatu egiten gara, norabide berean lan egiteko.

Ingurukoek eta familiak askotan galdetuko diote euren buruari zelan lagundu.

Ez dute jakiten zer egin. Askotan tabua izaten da, etxean mantentzen den zerbait, sekretu bat legez, eta lagunak zerbait arraroa ikusten dutenez pertsona hori baztertzera

“Gizarteak ez du beste gaixotasun batzuekin beste enpatizatzen”

heldu daitezke. Hori ez da sekula egin behar. Lagunek asko lagundu dezakete zer gertatzen den dakitenean. Momentu txarretan, adibidez, gaixoak bakarrik egon gurako du, eta bakarrik utziz gero gaixotasuna indartu egiten da. Lagunak beharrezkoak dira, barneratuta ditugun ohitura txarrak kendu eta ohitura osasungarriak mantentzeko.

Familiak ere laguntza beharko dute...

Askotan gurasoek gaixoek baino laguntza handiagoa behar dute. Batzuetan aurreiritziak dituzte; hasieran pentsatzen dute tontakeriak direla, moda kontuak... Baina ez, buruko gaixotasuna da. ACABEn badauzkagu gurasoentzako taldeak, beste kasu batzuk ezagutzeko eta dudak argitzeko. Laguntza behar dute; gu gaixoekin ordubete egoten

“Zenbat eta lehenago diagnostikatu, hobeto; gaitza da urte askoan barneratutako ohiturak aldatzea”

Gizartean aurreiritzi asko sumatzen dituzu?

Orokorrean ez da beste gaixotasunekin beste enpatizatzen; batzuetan tontakeriatzat hartzen da; bulimia anorexia baino hobeto ikusten da ez delako igartzen, anorexia argaltasunean ikusten delako... Batzuek lau terapiagaz osatu daitekeela uste dute, eta eragina izan dutela gurasoek, lagunak edo bikotekideak... Beti erruduna kanpoan dagoela pentsatzeko joera dago, eta ez da hain sinplea. Askotan gurasoek pentsatzen dituzte topiko horiek eta garrantzitsua da ideia horiek burutik kentzea.

Zenbat denbora behar izaten da osatzeko?

Orokorrean, 2-3 urte behar izaten dira. Baina geroago eta beranduago hasi, zenbat eta gaitzagoa da. Alta izan arren, gainera, zuhur ibili behar da, momentu gaitzak egon daitezkeelako udan, Gabonetan... Gure gizartea oso gaiztoa da kontu honetan, dena ospatzen da jaten. Momentu kritikoetan zuhur jokatu behar dugu, eta ezin dugu gure burua engainatu. ■ A.Ugalde



Otsailak 15 · Eguaztena · 20:00etan · Plateruenean

Martxelo Otamendik Jesus Egiguren

Otsailak 22 · Eguaztena · 20:00etan · Plateruenean

Bingen Zubiriak Josune Ariztondo

Otsailak 29 · Eguaztena · 20:00etan · Plateruenean

Iñaki Sotok Pernando Barrera

ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Humanitates ikastaroek huts!

Oker ez bagaude, duela hiru urte hasi zen antolatzen Humanitates izeneko ikastaro eta berbaldi sorta Durangoko Arte eta Historia Museoa. Egitasmo benetan interresgarria, historia, artea, literatura, matematika, pentsamendua eta, azken batean, jakintza sustatzeko ekimen ezin egokiagoa da.

Lehen edizioaren berri eman zenean, harriduraz hartu genuen Museoak antolaturikoa gaztelania hutsean izatea. Ulergaitza zen, baina tira... Iritsi zen 2. edizioa, euskaraz arrastorik ez, publizitatean ez bazen. Orduan ere, ikastaro eta berbaldiak gaztelania hutsean. Antolatzailerik berba egin genuen eta 3. edizioan, 2012an, zenbait ikastaro euskaraz ere eskaintzeko konpromisoa, berbazkoa, hartu zuten.

Asteon eman dute ikastaro-berbaldien berri eta, oraingoan ere, huts. Lotsagarri utzi gaituzte, lotsagarriago gelditu dira antolatzailerik eta, beste behin ere, tratu txarra jasan du euskarak. Larria da udalak onartutako Euskararen Araudia hankartetik pasatzea, izan ere, araudiaren 38. artikulua argi zehazten du hizkuntza irizpidea ikastaroak, tailerrak eta antzekoak antolatzen direnean.

19 modulu eta 76 berbaldi eskaintzen dituzte, denak gaztelaniaz! Penagarria.

Topikoa da, baina esan egin behar dugu: ikusi nahi ez duen itsua baino okerragorik ez dago.

Euskaraz bizi nahi dugunok gero eta gehiago gara, gero eta argiago ageri gara. Herritarrek, zaharrek, gazteak, elkarrekin... itzeleko ahalegina egiten ari gara/dira euskaraz suspertzen. Horregatik ez dugu ulertzen Durangoko Arte eta Historia Museoa hartu duen jarrera, arduragabekeria jokatzeko irizten baitiogu.

Barbaro taldea

Klik batean @



Lore lapurrari idatzitako mezua

Inguruko loreak lapurtu dizkieten elorriar batek ondorengo mezua idatzita utzi dio handik zehar "besteena hartzen" ibili den pertsonari. Hiru hizkuntzatan idatzi du, badaezpada, irakurleak aitzakiarik topatu ez dezan.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia

Asko gastatu eta gutxi aprobetxatu



Urdaspal **Bolinaga Bildu**

Otsailean gaude eta hotza handia izateaz gain aurrekontuak lantzeko garaia ere bada, edo, hobeto esanda, izan beharko litzateke. Oraindik udal taldeok ez baitugu ezta lehen zirraborra ere jaso gobernu taldeko PNVrengandik. Badirudi ordenantza fiskalak bezala-hau da, herritarrok ordaintzen ditugun zergekin eta tasekin egin zuten bezala-bizkor batean-laubost egunetan-burutu nahi dituztela.

Aurreko astean PNVko Durangoko alkatea arduratsu agertzen zen Durangoko herritarren egoera ekonomikoaren inguruan. Nik uste dut ardura hori benetakoa balitz, denbora gehiago eskainiko liokeela, eta ez soilik lau-bost egun. Beste alde batetik, kontu tribunala pasatu ondoren, hainbat elkarteri justifikatu gabeko diru-laguntzak ematea (500.000 euro), edo bi obratan gastuaren gainetik 4.000.000 euroko igoerak ematea leporatu zitzaizkien. Honez gain, krisiaren izenean zerbitzu batzuen (eskolentzako piztina zerbitzua) modifikazioaz ere hitz egin dute, orain arte beste proiektu batzuetarako (*Durangoko Pasinua*, adibidez, 32.000 euro lau egunerako) diru-laguntzak arazo gabe eman direlarik.

Beraz, dirua badago; gutxi baina badago. Kontua da nola kudeatu. Gure ustez, diru hori herritarren beharrezko erabilien beharrenez, herritarrei galdetu beharko litzaieke zeintzuk diren beraien beharrezkoak, eta proiektu horiek aurrera eramanez. Ez norberaren alderdiak eskatutako proiektuak edo bulegoetan kromo trukaketa bailitza erabakitakoak.

Azkenik, Donostiako alkateak aurrekontuak aprobartzeko beste alderdiei konpromisoa luzatu zuten moduan, alkate andreak ere konpromiso bera eskatzen zigun. Alde handi bat dago: Donostiako alkatea aurrekontuak egiteko Donostiako herritarrekin bildu da eta denen artean egin dituzte. Zuek noiz daukazue asmoa durangarrei galdetzeko?

Herritarrek egindako aurrekontuak? Bai. Zuen alderdiaren zuzeneko aurrekontuak? Ez.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
 Kultura Saila
 Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
 Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
 Bixente Kapanaga, 9
 48215-Iurreta (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 65 58
 Erredakzioa: 94 623 25 23
 Publizitatea: 94 621 79 02
 publi@anboto.org
 2012ko otsailaren 3a
 10. urtea - 445 zk.

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

 @anbotokultura

KULTURA

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Khantoria Durangon: musikaren historia azaltzen duten doinuak

Musikaren historia irakasten du Durangoko Musika Eskolan **Ander Berrojalbiz** durangarrak, eta Khantoria taldeko biolinista da. Otsailaren 10ean eta 17an Kuruzesantu museoan eskainiko du hirukoteak kontzertua



Azalduiguzu, mesedez, zein den musikaren munduan burutu duzun ibilbidea.

Umetan Durangoko Musika Eskolan hasi nintzen, lehenago Kontserbatorioa zenean, biolina ikasten. Bilbon burutu nituen Goi Mailako biolin ikasketak gero, eta handik Bizkaiko Aldundiaren beka batez Londresera joan nintzen. Han hasi nintzen antzinako musika jotzen; han sortu zitzaidan interesa horretan sakontzeko. Ondo-

ren, Aldundiaren diru-laguntzagaz, Alemaniako eskola batera joan nintzen, irizpide historikotatik oinarritutako antzinako musikaren ikastaroa egitera.

Antzinako musika lantzen espezialdua dago eskola hori?

Bai. Goi Mailako musika eskolaren barruan dago antzinako musikaren departamentua, eta horretan bereziki espezializatuta dagoen Alemaniako handiena da.

Alemaniara joan zen Ander antzinako musika ikastera, Aldundiaren diru-laguntzagaz

Zelan ailegatu zinen antzinako musikan espezializatzerara?

Gurasoek bultzatuta, biolina nik eta pianoa jo izan du anaiak. Gero, beste interes batzuk sortu zitzaizkidan Bilbon biolina ikasten nengoela, eta Historia ikasketak hasi nituen. Beti eduki dut historian ere interes berezia, eta antzinako musikarena interesgarrien egiten zitzaidan arloa zela ohartu nintzen: biolina jotzea eta historia ezagutzeari dakartza.

Zelan ikertzen da antzinako musikaren historia?

Biolina zelan jotzen zen azaltzen duten XVIII. mendeko tratatuak daude, esaterako. Baina, askotariko iturriak baliatzen ditugu; entzuleek liburutetan egindako komentarioak ere bai, esaterako.

Zer proiektutan diharduzu musikari lotuta?

Durangoko Musika Eskolan biolina eta Musikaren Historia erakusten ditut, Zaragozan finkatuta dagoen orkestra barroko batez XVII eta XVIII. mendeetako musika jotzen dut, eta Khantoria hirukoteagaz ere badihardut.

“Orain arte kontzertu nahikotxo jotzeko aukera eduki dugu, eta sarea egiten dihardugu”

Zein da Khantoriaren historia?

2008an eskaini genituen gure lehenengo kontzertuak Euskal Herrian. Nire moduan Londresen eta Alemanian ikasten ibili zen Maider neska-lagunak biola jotzen du taldean. Alemaniako udako kurtso batean Virginia ezagutu genuen; klabezina jotzen du hirukotean.

Khantoria legez, gura beste jotzeko aukera daukazue?

Orain arte kontzertu nahikotxo emateko aukera izan dugu, eta sarea egiten gabiltza. Egin genuen apustuak bat, kontzertuak Euskal Herrian eskaintzea izan zen, herri txikiak jaialdiak gerturatzeko: beste talde batzuekin hemendik kanpora asko jotzen dugu, eta Khantoria Euskal Herria mugatzea pentsatu dugu.

Europako iparraldean hemen baino gehiago zaintzen dute antzinako musikaren tradizioa?

Tradizio handiagoa daukate musikari dagokionez. Ipar European, musikari protestanteen eskutik hasi zen 1960ko hamarkadan antzinako musikaren iraultza; Alemaniako iparraldean, Holandan... Hemen, askoz geroago, 1990eko hamarkadan hasi zen garatzen. **Gaitza izaten da musikariarentzat arlo teorikoa eta praktikoa uztartzeko astia lortzea?** Taldea eratzean hartutako erabakia da, hain zuzen ere, guretzat ezin delako bata eta bestea banatu: batzuetan ikerketan, liburutegian, pasatu behar duzu denbora, eta ez jotzen, baina guk jartzen ditugu erritmoa eta lehenetsunak.

Durangoko Humanitates ikastaroan ere hartuko duzu parte.

Bai, Musikaren Historiari buruzko sarrera orokorra eskainiko dugu Maiderrek eta biok, Museoko ikastaro horretan. ■ I. Esteban

Aintzinako eran konposatutako euskal kanta herrikoiak ardatz

Ikuslearentzat klabezina bat ikusten duen lehenengo aldia izan daiteke Khantoriaren hitzaldi-kontzertua, “jotzen dugun musikaren eskatzen duela uste dugulako, azalpenak ematen ditugu kontzertu guztietan”, dio Berrojalbizek.

“Musika gutxiago eta azalpen sakonagoak” emango dituzte Durangon: euskal musika herrikoien jatorriaren gainean egindako ikerketa bat izango da emaldiaren haria. Gai horri buruz, esaterako, Aita Donostiak idatzi zuen liburua, eta beste hainbat lan ikertu eta konparatu, euskal musika herrikoien eta Erdi Aroko eliz musikaren erlazioari buruz osatu duten hipotesia azalduko dute: “Harremana badute; gure kanta herrikoia asko eliz moduetan, Gregorianoetan dago idatzita”.

Antzinako eran konposatuta dauden euskal kanta zaharren moldaketak eskainiko dituzte Kuruzesantu museoan: *Bereterretcheren Khantoria* kantagaz ohartu ziren, Anderrek dioenez, melodiaren lehenengo zatia eliz kanta batena lakoa dela, eta hortik tiraka IV. mendeko konposizio batera ailegatu dira. Hori da otsailaren 10eko hitzorduaren oinarria.

Hori guztia azaldu eta hainbat kanta joko dute: *Haika mutil* eta *Lelotxo Montañako*, esaterako.

Otsailaren 17ko hitzaldian, aldiz, 1610ean biolinarentzat beren beregi sorturiko lehenengo sonataren inguruan jardungo dute. Partitura azalduta, jendeak musika “ikustea” lortu gura dute: musika irakurtzen ez dakienak ere partitura segitu dezakeela erakusteko.



DANTZA > LEHIAKETA



Hamasei talde kale dantzen Elorrioko Aka Dantz lehiaketan, Arriolan bihar

Otsailaren 4an, 18:00etatik aurrera, Elorrioko Arriolan burutuko dute Aka Dantz lehiaketaren laugarren edizioa

Dantza garaikidearen hainbat modalitatean jarduten duten dantzarien lehiaketa hartuko du, laugarren urtez, Elorrioko Arriola antzokiak, otsailaren 4an 18:00etatik aurrera.

Antolatzaileek azaldu dutenez, zortzi taldek eman dute lehiaketaren Street modalitatean parte hartzeko izena: Iruñea, Elgoibar, Castro, Valladolid, Donostia eta Bilboko taldeak dira, eta house, new style, hiphop, edo popping dantzakera eskainiko dituzte. Jazz funk estiloa jorratzen duten lau tal-

deren lana ere ikusgai izango da, baina, Arriolan bihar; eta Gasteiz, Zaragoza, Madrid eta Valladolideko lau talde lehiatuko dira, bestalde, Breakdance-an.

Hiru minutuko koreografia bana aurkeztuko du lehiaketara talde parte-hartzaile bakoitzak

Hiru minutuko koreografia bana aurkeztuko du lehiaketara parte hartzen duen talde bakoitzak biharko hitzorduan.

Modalitate bakoitzeko epaimahai adituak "lanen kreatibitatea, musikaren originaltasuna, dantzaren kalitatea eta talde lana" hartuko ditu kontuan, besteak beste, lehiaketako sariak banatzerako orduan. Hiru modalitatean, 300 euroko lehenengo saria eta 150eko bigarrena eskainiko ditu antolakuntzak, eta BreakOnStage-n parte hartzeko sari berezia ere bai. ■ I.E.

ARTEA > ZIKLOA

IX. Artearen Ezaupidea zikloari ekin zioten atzo

Durango Arte eta Historia museoan antolatzen dute Artearen Ezaupidea

Edu Lopezek atzo eskaini zuen hitzaldiaz hasi da IX. Artearen Ezaupidea berbal-di zikloa Durangon. *Un juego de paréntesis* izenburuko berbal-dia eskaini zuen Lopezek, aurten arte garaikideari begiratuko

XXI. mendeko euskal artistak hartuko dituzte berbagai otsaileko arte-jardunaldietan

dion Artearen Ezaupidea jardunaldiaz abal-tzeko. XXI. mendeko euskal artistak hartuko dituzte otsaileko arte-jardunaldietako beste bi hitzaldietan ere ahotan.

Imanol Marrodanen *Free solo: la próxima frontera un nuevo límite... el camino* izeneko berbal-dia entzuteko aukera izango dugu, esaterako, zikloaren bigarren hitzorduan, otsailaren 16an.

Otsailaren 23an, berriz, *El poder de la imagen/la imagen del poder, nuevos documentalistas* hitzaldia eskainiko du Begoña Zuberok, Arte eta Historia museoan.

BERBALDIK

Otsailaren 16an

Imanol Marrodan: *Free solo: la próxima frontera, un nuevo límite... el camino*

Otsailaren 23an

Begoña Zuberok: *El poder de la imagen/la imagen del poder, nuevos documentalistas*

Durango Arte eta Historia Museoan, 19:00etan

Artezaleen topagune izateko sortu zuten orain bederatzirte Artearen Ezaupidea. Aurten, aurkezpen orrian Aitor Aurrekoetxea antolatzaileak dioenez, "euskal arte garaikidearen amaraunean aktiboki parte hartzen dutenekin, gaur egungo egoera latzean sortzaileek dituzten kezka-iturrien gainean", jardungo dute. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Arantza Arrazola
San Agustingo kudeatzailea



Antzerkiaren epaileak

Lehenengo batean antzerki konpainia baten iritzi artikulua batean antzoki eta aretoetako kudeatzaileok "antzerkiaren epaile" bilakatu gara leporatu ziguten. Litekeena da iritzi partikularra izatea, talde guztiek partekatzen ez dutena, baina, egia osoa da, baita ere, ez dela lehenengo aldia halako zer edo zer entzuten dudala, eta jada kontu honekin petratzen hasita nago.

Oso kontratazio gutxi duen taldeak sinatzen zuen artikulua, eta, jakina, errua kudeatzaileona da; izan ere, "ikuslegoak ez omen du erabakitze ahalmenik, eta hala, ikuskizunek ikuslegoarentzat gustagarri izan beharrean, programatzaileen gustukoak izan behar dute". Hain hutsala eta demagogikoa iruditzen zait hori guztia!

Ea ba, euren modura egingo dugu, utz dezagun bada, publikoak erabaki dezan: gaur egun Euskadin bertan 100 ikuskizunetik gora eskaintzen dira (gehiago ez badira), antzez beza bakoitzak bere lana, ondoren publikoak erabaki dezan. Baina... nondik aterako da lan hori pagatzeko dirua?

Areto publikoetan diru publikoa kudeatzen dugu; Durangon adibidez, urtean zehar hogeita hamarren bat emanaldi kontratatzen ditugu. Zer galbaherekin? Publikoarenarekin. Artikuluak esaten duenaren kontra, nire ustez, publikoak erabakitzen du. Zelan?

Areto bateko ikusle/bezero edo bazkide egiten denean; ezertaz eza-gutzen ez duen talde baten espektakulua ikustera joaten denean, aretoaren senari jarraitzen diolako. Erabakitzen du emanaldia ikusi eta gero bere iritzia ematen duenean. Eta programatzaileak horiek guztiak izaten ditu kontuan bere egunerokoan; izan ere, publikoak eta aretoak nola kudeatu jakiteko programatzaileok eskola profesionalak jasotzen ditugu. Gu ez baikara epaileak, herri baliabideen kudeatzaileak baizik.

PLATERUENA Durango Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 4 17:30ean
TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON JUNIOR. HAURRENTZAKO PAILAZOAK
Sarrera: 4euro.

OTSAILAK 10 22:00etan
GAU ELEKTRONIKOA
MUSIKA ELEKTRONIKOA ZUZENEAN III. URTEURRENA. Sarrera: 10-12euro.

OTSAILAK 11 17:00etan
DURANGALDEKO II. SURF JAIALDIA
JAIALDIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LAS MARIPOSAS DEL ESTOMAGONO HAN MUERTO

La Papa Producciones (Durango)

Urtarrilak 3 • 19:00
Urtarrilak 4 • 20:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda

artekalea 14, durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

MUSIKA > ELKARRIZKETA

“Talde moduan hasi egin gara, jende gehiago batu da Gau Elektronikora”

Otsailaren 10ean Durangoko Plateruenean ospatuko dute Gau Elektronikoaren hirugarren urteurrena. Jai berezia prestatu dute datorren barikurako antolakuntzan jarduten duten **Iker Undersound** eta **Ruben Costas** Dj-ek: Txixarro diskotekan aritzen den Patt eta lau Dj gazte gonbidatu dituzte jaialdi horretara

Zer prestatu duzue otsailaren 10eko Gau Elektronikorako?
Gonbidatu handia dakargu, bate-tik: Patt. Euskal Herriko Dj-rik ezagunenetakoa da, Euskal Herriko aretorik onenean diharduena.

“Euskal Herriko aretorik onenean diharduen Patt Dj-a etorriko da”

Lehenago gonbidatu duzue Pat Gau Elektronikoetara inoiz?
Bai, laugarren aldia da Platerueneko Gau Elektronikoan parte hartzerako gonbidatzen duguna. Urtean behin, gutxienez, etortzen da.

Zeuek ere ipiniko duzue, baina, datorren barikuan musika!
Bai, noski. Gugaz batera beste lau Dj gazte ere izango dira, gainera. Batetik, gogo handiz dabilzalako gonbidatu ditugu. Eta bestetik, guk biok jende gehiagoren kolaborazioa behar genuelako.

Nongoak dira Gau Elektronikoaren fitxaje berri horiek?
Laudiokoa da bata, abadiñarrak beste bi, eta Durangokoa da laugarrena. Urteak dira ezagutzen ditugula, eta gogotsu eta etorkizunerako apustu moduan ikusten ditugulako gonbidatu ditugu. Gauza berriak ekarri ditzakete.

“Gau Tv-ko katedralariak, lau kolaboratzaileak, manager berria... jende berri asko batu zaigu”

Aurretik entzule izan dira zuen Gau Elektronikoetan?
Denak etorri izan dira gure saioetara. Hamazazpi-hamazortzi urte-gaz, geu hasi ginen moduan, musika honen ingurukoak ikasten dabilta; elektronikaren eta gauaren mundua ezagutzen.

Zabalduegin duzue Gau Elektronikoaren lan-taldea...
Gu biok, Gau Tv-ko kamelari biak, lau kolaboratzaile, manager berria eta aretoko arduraduna dauzkagu taldean. Talde moduan hasi egin da Gau Elektronikoa, eta proiekturajende asko batzeari lortu dugulako oso pozik gaude.

Azalduegizuzue zertan datzan Gau Tv proiektua...
Proiektu oso berritzailea da, Euskal Herrian orainarte inor ez dena ausartu aurrera errotan. Kameralari bi dabilta gugaz. Etorkizuna-

ri begira, atzerrian ere gure lana ezagutzera emateko baliabide bezala apustu inportantea da: Youtube-ren bitartez asko zabaldudezakegu gure lana. Web gunea (www.gauelektronikoa.com) ere badihardugu martxan ipinigurán. Laster bistaratu dugu.

Zelako bideoak izaten dira osatzen dituzuenak?
Telebista formatuan eta irudi bereizpen handiagaz osatutako bideoak izaten dira: gure proiektuagaz lotutako gai bat aukeratu, eta erreportajea osatzen du zuzendariak. Bost kapitulu dauzkagu gure Youtubeko kanalean ikusgai. Gau Elektronikoan parte hartu zuten Dj valentziar biri egindako elkarrizketagaz osatu dugu bideoetako bat, Lekeition egin genuen emanaldi batean, etab.

“Telebista formatuan eta irudi bereizpen handiagaz egindako bideoak dauzkagu Gau Tv-n”

Zer helburu daukazue etorkizunari begira?
Gau Elektronikoaren marka Plateruenean haratago ere zabaltzea da daukagun helburuetako bat. Ildo horretatik, Tour bat egiteko asmoa daukagu. EAE eta Nafarroako aretorik onenak bisitatze-ko indar nahikoa hartu dugula pentsatzen dugu: martxo inguruan gura dugu tour hori abiatu.

Ipintzen duzuen musikari dagokionez, desberdintasunik igarriko dute barikuan zaleek?
Trantsizio urte bat eduki dugu musikari dagokionez: txipa apur bat aldatu dugu. Elektronikaren barruko estiloetan beti, baina dantzagarriena ez den *deep-house* arloan jardun dugu azken hilabeteetan, eta hemendik aurrera berriro bueltatuko gara gure *tech-house* jatorrira: dantzagarriagora. Entzulearengana bueltatuko gara: Gau Elektronikora ondo pasatzera datorren publikoarengan ipiniko dugu berriro fokua. Horixe baita Dj baten lana: jendea dantzaraztea, jendeak ondo pasatu dezan musika ipintzea. Bestalde, musika sortzaile, ekoizle moduan ere haztea da etorkizunerako daukagun helburua. ■ I. Esteban



Durangaldetik kanpoko jendea erakartzea helburu

“Dena hobera joan dela” erantzun digute Iker Undersound eta Ruben Costas gazteek, Durangoko Platerueneko Gau Elektronikoa proiektuak martxan daramatzan hiru urteetako balantzeaz galdetu diegunean. Emanaldietan batzen den publikoa asko aldatu, “berritu” egin

dela ere azpimarratu digute: “Hasieran publiko gehiena Durangaldeko herrietatik gerturaten zen, eta orain, aldiz, hemendik kanpoko jendea etortzen da gehiago: entzule berriak erakartzea lortu dugu”.

Gau Elektronikoa, musika baino gehiago, “ikuskitzuna, sor-

tzen den giroa” dela azpimarratu gura izan dute Iker eta Ruben antolatzaileek.

Otsailaren 10eko Gau Elektronikoan ere ikuskizuna segurtatuta dagoela aurreratu dute: lagun duten eta Dj moduan beharrean hamabost bat urte daramatzan Pat gonbidatu dute. “Hasi ginenean oso gogotsu geunden gazte bi ginen, baina baliabide gutxi geneuzkan, eta bere esperientziatik asko lagundu zigun Patt-ek”, diote.

e t x e a
i a t
i a t
e t x e a


PLATERUENA

Astelehena **-%10 ASTELEHENGORRI**

Asteartea **ARINARIN** 

Asteazkena **AHOBETEMUNDU** 

Osteguna **? GEUREKONTU** 

Ostirala **BARIKUNASAL** 

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI 

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA, Landako etorbidea, 4 A.
- 48200 Durango - Jatebeka: 946030300

Gremitioen gida

DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak



- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com

AROTZERIA

EGUIA s.l.

AROTZEGIA

- GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Televés
Instalazioak
Otzizale

ITURGINTZA

berriozabaleta

Iturgintza • Berokuntza

gremioen koordinaketa
jose miguel acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

GARBIKETAK

AZKARGI GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombrak

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta



PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

Sotaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 50 74
urtiaga.sl@terra.es

urtiaga gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Mallabiena

M.Z.O.ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



LORAZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Ubide iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

@anbotokirola

KIROLAK >

“Kopako finalean egongo naiz seguru; Mirandesezagaz ez bada, Athletic animatzen”



Futboleko konpromisoek ahalbidetzen diotenean, ingeneritza teknikoko ikasketak burutzen dihardu Iñaki Garmendiak. K.Aginako

DATUAK

Izen-abizenak:
Iñaki Garmendia

Herria eta adina:
Otxandio, 30 urte

Ibilbidea:
2002/03: Kulturala
2003/05: Alaves B
2005/06: Extremadura
2006/08: Real Jaen
2008/09: Amurrio
2009/12: Mirandes

Horrelako mailetan une egokian toki aproposan egoteak asko esan gura du. Batzuetan 1. mailako eta 2. B mailako taldeen artean ez dago hainbesteko alderik; berdin 2. mailakoekin.

Ezagutzen duzu Koikili?

Bai bera eta bai Toquero. Ni Alaves Bn nengoenean ezagutu nuen Gaizka. Koikiligaz ez naiz aspaldian egon; Gabonetan elkar ikusi genuenean, eta ordurako Kopan egiten genbiltzan lana itzela zela aipatu zidan.

Ilusioa zelaian eta zurrunbiloa handik kanpora: horixe da Mirandeseko jokalarien azken aste-etako bizimodua. Elkarrizketa egin diogun bitartean, mugikorra jo eta jo zebilkion. Eta San Mames etortzeko dago oraindino.

Ligako talderik handien moduan, hedabideen jomuga zarete asteotan.

Gure artean ez dugu hainbeste komentatzen, baina inguruko giroa berezia da; entrenamendura etortzen den zale kopurua, prentsa aretora batzen diren kamara guztiak, mugikorrean izaten ditudan dei eta mezu konstanteak... Balentria txiki bat egiten gabiltzala sumatzen dugu.

Zelaian erakusten duzuen ez da gutxiagorako. Martitzenean ere, azken minutuan gola.

Azken segundora arte ez etsitzea da gure lema. Nik uste gol horregaz kanporaketa oraindino zabalik geratzen dela.

Carlos Pouso entrenatzailearen arabera, San Mamesera ez zarete egunpasa joango.

Ezta gutxiago ere! Kanporaketa hau sari bat da guretzat eta disfrutatzeke prest gaude, baina ez gara denborapasa joango, daukagun dena ematera baino.

San Mamesen jokatzeko ere badauka bere xarma.

Mirandeseko taldekide erdiak Athletic zaleak gara, eta bai: San Mames zelaian jokatzeko sari ederra da guretzako.

Zure hainbat lagun joan zen Mirandara. Zer esan zizuten partida hasi aurretik?

Nire koadrilako denak Athletic zaleak dira. Bihotza erdibiturik zutela esango nuke, baina denak Mirandeseko kamiseta jantzita joan ziren, eta ez da gutxi. Kopako finalera joateko asmo finkoa dute. Ni neu ere Athletic zalea naiz, eta Kopako finalera joateko asmoa dut: Mirandesezagaz zelaian ez bada, Athleticcezagaz harmailetan egongo naiz, entrenamenduek modurik ematen badidate.

Martitzeneko partida berezia izan bazen, Espanyolen kontrakoa magikoa suertatu zen.

Bartzelonan galdu eta etxean ere galtzen hasita, kanporaketa gaitz ikusten genuen, baina azkenera arte borrokan jarraituta ezinezkoa zirudiena lortu genuen. Imajinatu zelako poza!

“*Inguruan sortu den zurrunbiloa ikusita, badakigu balentria txiki bat egiten gabiltzana*”

Gau hartan bai, baina hurrengo egunean ez zenuen gozatzeko astirik izan.

Ingenieritza teknikoa ikasten nabil, eta azterketa bat prestatzen ibili nintzen. Futbola eta ikasketak bateratzea ez da beti erraza, baina ikasketak amaitzeko animoz nago. Futboletik bizi daiteke jokatzeko duzun artean, baina gerorako bideak zabaltzea garrantzitsua da.

“*Etorkizunari bigarren mailan urte bat eskatzen diot, balio dudana ala ez konprobatzeko*”

Gaur egun, krisiagaz futbola ere larri dabil. Horixe dugu Lemoaren kasua. Antzekorik bizi izan duzu inoiz?

Gogoan dut Extremaduran egon nintzenean sei hilabete eman genituela kobratu barik. Ni bakarrik bizi nintzen, egoerari eutsi ahal izan nion, baina seme-alabak eta familia zituzten batzuek txarto pasatu zuten.

Durangoko Kulturean jokatu zenuen 2002/03 denboraldian. Zer gomuta daukazu?

Asko gazte mailatik elkarregaz jokatzetik genduzen. Gora igozten beteranoagoak zirenekin ondo elkar hartu genuen, eta, zelanbait esatearren, familia handi bat ginen. Oso gomuta onak dauzkate, egia esanda.

Anaia Anderrek Kulturean jokatzeko du. Lortuko ote dute aurten play off postua?

Gaitza da. Esperientzia eta diru gehiago daukaten taldeak daude; Barakaldo eta Portugalete kasurako. Hala ere, dena da posible; iaz Amorebieta igo egin zen, eta aurten ederto dabilta 2. B mailan. Beraz, lortu daiteke.

Amorebieta aipatu duzu. Asteburuan euren kontra jokatzeko duzue etxean.

Berriro gora egin dute, eta indartsu datoz. Kopa apur bat alboratu eta partida horretan zentratu beharko dugu, irabaztea gura badugu.

Ibilbide luzea daukazu 2. B mailan. Toquero eta Koikiliren adibideak ezagututa, zeure burua goragoko mailan aritzeko esperantzarik badaukazu?

laz dena alde zenutela, ustekabea igoera barik geratu zineten Mirandesen. Kirol ibilbideko unerik gogorra izan zenuen?
Duda barik. Gol gehiago sartzeko aukerak izan genituen, eta igoera oso gertu ikusten genuen. Despiste txiki batek utzi gintuen kanpoan. Bost egun egin nituen telefonorik hartu barik, eta ia inogaz berbarik egin barik; oso gogorra izan zen.

30 urte daukazu. Aurrerantzean zer eskatzen diozu futbolari?
30 urteagaz fisikoki beherantzko joera hasten dela diote, baina ni ondo sentitzen naiz; alde horretatik gustura nago. Etorkizunari zer eskatzen diotan? Bigarren mailan urtetxo bat eskatzen diot, balio dudana ala ez bertatik bertara konprobatzeko. ■ J.Derteano

> Bideoa: www.anboto.org



Espanyolen kontrako partidua magikoa izan zen.

Durango Ilarduyak jaitsiera promozioa jokatu du

Hori ekiditeko lehenengo baldintza geratzen ziren partida biak irabaztea zen, eta horretan huts egin dute DRTko errugbilariek



Hospitaleten kontra ez zen maila onean aritu Durango Ilarduya. Kepa Aginako

O horezko B mailan jaitsiera promozioa ekiditeko eginda zituzen kabala eta kalkulu guztiak ezerezean geratu ziren, joan zen asteburuan Hospitaleten kontra etxean galdu ondoren: "Lehenengo baldintza geratzen ziren partida biak irabaztea zen, eta horretan huts egin dugu" aitortu du Zorion Zabala entrenatzaileak.

Hala ere, hemendik asteburu bira Hercesaren kontra jokatu duten azken partidaren badute zerbait jokoan: azkenak beharrean azkenurreko geratzea, horrela beste multzoko azkenekoaren kontra jokatzeko; liga osoan puntu bi bakarrik batu dituen Sevillako Helvetia ahularen aurka; gainera itzuliko

partidua Arripausuetan jokatzeko eskubidea ere lortuko lukete. Horretarako, bost puntuko aldean behar diete Hercesari partida horretan; garaipenaz batera, bonus puntua behar dute.

Ondoren, Helvetiaren edo Madrilgo Arkitekturaren kontrako promozioa kanporaketa hori galduz gero, goren mailara jaitsiko lirateke. Irabazita ere salbazioa ez zen ziurtatuta egongo. Oraindik beste neurketa bat

Hercsaren kontra azkenurreko geratzea dute jokoan

jokatu beharko lukete goren mailako talde baten kontra.

Promozio eskuragarria

Espainiako Errugbi Federazioak datorren urterako egingo dituen moldaketak ederto etorriko zaizkio DRTri. Hurrengo denboraldian talde bi gehiago egongo dira ohorezko mailan zein ohorezko B mailan. Ondorioz, seguruenik, goren mailako lau multzoetako lehenengo sailkatuek euren arteko kanporaketen bidez erabakiko dute zer bi talde igoko diren ohorezko B mailara. Ondoren, neurketa horietan kanpoan geratu diren taldeen artean irtengo litzateke ohorezko B mailako taldearen kontra jokatu lukeen arerioa. ■ J.D.

Onenen trenera igo da berriro Durangoko Kulturala

Azkeneko lau partidak segidan irabazita, onenen artean kokatu dira berriro ere



Elgoibar, Baskonia, Laudio eta Alaves Bri irabazi diete. K.A.

Bolada ona amaitu bezain laster beste hobe bati hasiera eman dio Durangoko Kulturalak. Sei partidatan golik jaso barik zeuden Mikel Agirregomezkortaren mutilak, harik eta joan zen asteburuan Elgoibarrek durangarren atea zulatu zuen arte. Hala ere, Kulturalak 2-1 irabazi zuen, eta ondorioz azkeneko hamabi puntuak bata bestearen atzetik batu zituzte, arerioei play-off postuen borrokan egon gura dutela garbi erakutsiz.

Orain hiru puntura dute laugarren postu desiratu. Asteburuan puntuetara berdinduta eta postu beraren borrokan dabilen Beasain bisitatuko dute. ■ J.D.

Asteburuan puntuetara berdinduta dagoen Beasain bisitatuko dute

ADITUARENTXOKOA

Gotzon Gomez
Errugbi entrenatzailea



Azkenera arte sufritu behar

Liga amaitzeko partida baten faltan, jaitsierako play-offa jokatu beharko dugula ia ziurra da. Erabakitzeke dagoena da nor izango dugun aurkari: Madrilgo Arquitectura edo Sevillako Helvetia.

Non egon da egoera honetara heltzeko gakoa? Hainbat faktore daude, eta bi nabarmenduko nituzte. Alde batetik, lesioak. Bigarren itzulian, batez ere, ezinezkoa izan zaigu hamabostekoa errepikatzea. Hori partida batean nabaritzen bada, gehiago itzuli osoan; batez ere, lesionaturik dauden jokalariek taldearen ardatza direnean.

Bestetik, azpimarratuko nuke taldeak orokorrean duen antsietatea. Partida askotan irabazteko aukerak sortu ditugu, baina gauzatzeko momentuan, lehen aipatutako antsietate horrek, irabazteko behar horrek, erabaki txarrak edo behintzat zuzenak ez direnak hartzerantz eraman gaitu.

Harmailetan eta aldageletan epaileen kontua ere entzun dut nik, batez ere, azken partidetan, baina epaileen lanari ez nioke duen baino garrantzi handiagoa emango, azkenean beraien lana ona izatea ez dagoelako gure esku; ziurrenik, lehen aipatutako hutsegiteak gauzatu izan bagenitu, beste kontu batzuetaz arituko ginateteke berbetan.

Lesionaturik dauzkagun jokalariek errekuaratzea ezinbesteko dugu hurrengo finaletarako. Entrenatzaile garen heinean, gure erronken artean dago aipatutako antsietatea lantzea ere, eta ahal dugun neurrian leuntzea.

Bi arlo horiek aurrera ateratzeko moduan bagina, datorren denboraldian ere onenen artean egongo ginateteke, inongo dudarik gabe!

Zaldia-Berriz, behar larrian dauden derbia

Futboleko goren mailan puntu behar handian dauden Zaldia eta Berrizen arteko derbia jokatu da asteburuan. Bigarren itzulia hasi berritan talde biak jaitsiera postuetan daude. Zaldia azken aurreko dago eta zazpi puntura du salbazioa. Berrizen panorama beltzagoa da. Azken postuan, 12 puntura du salbazioa.

Maila berean, bestelakoa da lurretakoren egoera. Igoera postuan dago, bigarren, nahiz eta joan zen astean galdu egin zuen Basurtoren aurka. ■ J.D.

Mendi lasterketen blog edo web onenaren bila

Oier Ariznabarreta korrikalari durangarrak trail edo mendi lasterketen inguruko web edo blog onena zein den jakiteko inkesta hasi du bere blogean: oariznabarreta.260mb.com. Arlo horri lotutako 10 webgune edo blog ipini ditu hautagaien artean, eta gura duen edonork eman dezake bere botoa blogean. Oraingoan, euskaltrail.com eta lasterketak.com guneak dira botorik gehien lortu dituztenak inkesta horretan. ■ J.D.

Elorrio kanpoko lehen garaipen baten bila

Elorriok etxetik kanporako lehen garaipena lortu gura du asteburuan Sodupen. Etxean sendo dabilzan moduan (porrot bakarra Getxo liderraren aurka), kanpoan puntuak batzea kostatzen ari zaie: bost berdinketa eta lau porrot. Golik gutxien sartu duten taldea da Elorrio (13 gol 18 partidutan), baina baita gutxien jaso duen bigarrena ere (12). Ohorezko mailan estreinako urtea duteenez, nota onagaz amaitu dute lehen itzulia, jaitsiera zazpi puntura dutela. ■ J.D.

Elorriokoren erreakzioa areto futbolean

Elorrioko Buskantzak azken hamabi puntuetatik bederatzita batu eta jaitsiera postuetatik irtetea lortu du. Azken asteetan Santurtitik eta Donostiatik hiru puntuak ekarri ditu, eta etxean Sasikoaren kontrako derbia irabazi du. Naturgasen kontra ere punturen bat batzeko zorian egon zen. Asteburuan Zarautz azkenurrekoa bisitatuko du. Areto futboleko hirugarren mailan Mallabia Hierros Servando dugu oraindik ordezkari onena. ■ J.D.

640 kilora arteko txapela Durangon jokatuko dute

Zapatuan 17:00etan Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan jokatuko den finalean, irabaztea du helburu Abadiño Sokatira Taldeak



Gizonetan 640 kilora arteko finala jokatuko dute, eta emakumeetan 500 kilora artekoa.

Durangok Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketako finala hartuko du zapatu honetan. Gizonezkoak 640 kilo arteko kategorian lehiatuko dira, eta emakumezkoak 500 kilo artekoan. Gizonen atalean Abadiñok txapela janztea izango du helburu; A eta B taldeek parte hartuko dute.

Abadiñarrez gainera, Arrigorriagako Sokarri, Nafarroako Amaur eta Basaburua, eta Gipuzkoako Ibarra etorriko dira Durangora. Amaur, Ibarra eta Sokarri izan daitezke Abadiñorentzat arerio gogorrenak, tiralariek aurreratu dutenez. Aurreko

Aurreikuspenak betez, Abadiño indartsu dabil xake ligan

Euskal ligara itzultzeko asmoa benetakoa dela erakusten dabil Abadiño Xake Taldea. Asteburu honetan Bizkaiko goren mailako ligako erdibidera helduko dira, eta bigarren tokian daude Santurtzi liderrarengandik puntu erdira. Hain zuzen ere, Santurtziaren kontra lehenengo jardunaldian jokatuako lehia bina amaitu zen. Ondorengo bietan irabazi egin dute.

Lehen mailan Larrasoloeta azkeneko dago, lau puntu gaza, baina puntu erdira du salbazioa. Zaldi Baltza finago dabil, eta sailkapenaren erdian kokatuta dago. Elorriarrek Balmaseda liderra izango dute arerio asteburuan; Larrasoloetak, berriz, ez jaisteko borrokan arerio zuzena den Endroke. ■ J.D.

Amaur, Ibarra eta Sokarri izango ditu areririk indartsuenak

aldiren batean legez, pilotalekuan giro ona izatea itxaroten dute antolatzaileek.

Emakumeen txandan, berriz, Badaiotz eta Bizindar arabarrak, Ibarra gipuzkoarrak eta Berriozar eta Sakana nafarrak ahaleginduko dira irabazten. Badaiotz aurreikusitako daitezke faborito legez.

600 kilora artekoan talde bi Bestalde, otsailaren 11n, 600 kilo arteko finala jokatu dute Berriozarren, eta Abadiñok talde bi sailkatu ditu. Talde nagusiaren helburua pisu horretan ere txapela janztea da, baina Sokarri garesti salduko die txapelketa. 600 kilora arteko finalera sailkatzeko kanporaketa bi jokatu dituzte, eta lehenengoan Abadiño nagusitu bazen ere joan zen asteburuan, Idiazabalen, Sokarri tiraldi biak irabazi zizkion, lehenengo tokia eskuratuz.

Berriozar, Amaur eta Napurrak taldeek osatuko dute finaleko seikotea. ■ J.D.

Erasoko joko nagusituko da Anbotopeko-Tabirako derbian

Lehen erregional berezian punturik gehien egin dituztenak dira Durangoko talde biak

Zapatuan ikuskizuna segurtaturik duen derbia jokatu dute Anbotopeko eta Tabirako, Tabiran. Durangoko talde biak lehen erregional bereziko goialdean daude, eta punturik gehien sartu dituztenak dira. Anbotopeko da lau zifrako markara heldu den bakarra oraingoz: orain arte jokatuako 14 jardunaldietan 1.006 puntu sartu dituzte; partidako, 72 puntu batez beste. Tabirakok gertatutik jarraitzen dio 991 puntugaz: 71 batez beste.

Denda dela, Tabirako gorago dago sailkapenaren; 11 garai-penagaz, hirugarren daude Mungia bigarrenagaz berdinduta. Gainera, sasoi betearen dabil-tza azkeneko sei partidak segi-

dan irabazi dituztelako. Anbotopeko bosgarren dago sailkapenean, bederatzi garai-penekin, eta denboraldi gorabeheratsua darama. Azken aldian berriro sasoi hartu dute, garaipen bi jarraian lortuta. Lehenengo itzuliko derbian Tabirakok 86-66 irabazi zuen.

Tabirakoko gazteak

Bestalde, joan zen astean gazte mailako Lauko Finalak jokatu zituzten, eta emaitza bikainak lortu zituen Tabirakok. Ondorioz, nesken kadeteetan zein nesken gazteetan euskal ligan jokatzeko eskubidea irabazi dute. Talde horiei lehenetik dabilen nesken kadeteena (2. urtekoa) gehitu behar zaie. ■ J.D.

Erorketa batek aukera barik utzi du Egoitz Murgoitio

Murgoitio ez du amestutako denboraldi amaiera izan. Ilusio osoz eta helburu sendoeekin joan zen Belgikako Munduko Txapelketara, baina eroriko batek lasterketatik kanpora utzi zuen. Hasi eta berehala jausi zen, gainera; lasterketari ekin eta 50 metrora, postuak irabazteko lehenengo pedalkadak ematen zebilela, katea irten zitzaion eta ezin izan zuen erorketa ekidin.

Eskumako hankako behatz lodia minduta dauka erorketarik

Lasterketa uzteko unea "gogorra" izan zela onartu du, "baina behintzat ez zen nire huts bategatik gertatu" dio. Eskumako hankako behatz lodian min hartu ei zuen, eta asteon Bilboko kliniketan probak egin dizkiote. ■ J.D.

Berasaluze VIII.a eta Irujoren arteko dema gaur Idiazabalen

Gaur, 18:30ean, Idiazabalen Berasaluze VIII.ak eta Albisuk Irujo eta Barriolaren aurka jokatu dute. Bikote biak sailkapenaren goialdean daude, eta atzelariek euren ematen badute jardunaldiko partidarik ikusgarriena izan daiteke. Horretarako, ordea, Albisuk bizkarra erakutsi behar dio Barriolari. Berasaluzerak Albisuk bikoteak lau garaipen lortu ditu orain arte; Irujok eta Barriolak bost garaipen dituzte.

Bestalde, Promozio Txapelketan, Iñaki Larrinaga elorriarrek eta Olazabalek Taintaren eta Argoteren kontra jokatu dute, domekan Gernikan. Orain arte Larrinagak eta Olazabalek hiru neurtura irabazi eta bakarra galdu dute. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

OHOZKOTU MAILA

Zaldua - Berriz

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B - Amorebieta

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

Iurretako B - Betolatz

Zapatuan, 17:30ean, Larakozelain

Berriz B - Extremerio

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA

(emakumeak)

Elorrio - Leloako emakumeak

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

Iurretako - Bizkerre

Zapatuan, 19:30ean, Larakozelain

ARETO FUTBOLA

OHOZKOTU MAILA

Mallabia Hierros Serv.-Santurtzi

Domekan, 17:45ean, Zaldibarko kirolegian

Sasikoa - Aurrera Vitoria

Domekan, 12:00etan, Landako kirolegian

GOREN MAILA

Presion Break - Altamira Bar Txutxi

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

Sapuberri - Aurrera Beti

Zapatuan, 16:30ean, Landako kirolegian

Abadiño Gatzetxe - Pozgarri

Domekan, 18:00etan, Traña-Matienako kirolegian

SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

Tabirako - Fundacion Baskonia

Domekan, 12:00etan, Landako kirolegian

LEHEN ERREGIONAL

BEREZIA

Anbotopeko - Tabirako

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

PILOTA

NESKEN EUSKAL HERRIKO LIGA (palan)

- Martinez - Martinez / Mancisidor - Semper

- Garmendia-Mendizabal / Martin-Itsasmendi

- Goikoetxea-Huici / Etxarri-Mariñelarra

Zapatuan, 16:30ean, Mallabiko pilotalekuan



A. Urrera pedagogoa

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

HERRIKO GUDARIEN KALEA, 10 - BEHEA
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Pinara Urrera Jainaga
 PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

12.000 BAIETZ!

anboto

komunikabideak



2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIAKek emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1 anboto@anboto.org
helbidera idatzi.

2 946816558
telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta
bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....

"Protestatzeak bakarrik ez du balio, gero ez bada erreklamaziorik jartzen"

Amakomunazgoak OMIC kontsumitzaile bulegoaren ardura dauka. Erreklamazioen erdiei arrazoia ematen diete.



Erreklamazio orriak: 102

Bitartekaritzak:

Durango 609
Abadiño: 156
Iurreta: 54
Garai: 4
Elorrio: 77
Zaldibar: 31
Mañaria: 8
Atxondo: 18
Izurtza: 6

1.065
erreklamazio bideratu ditu OMICek 2011n

ditugu. Sinatzen duguna irakurri egin behar dugu, behin sinatuta erreklamatzek ez du-eta ezertarako balio. Hornitzaileekin eta bankuekin honelako kasu asko gertatzen dira.

Sasoiaren arabera izaten du gora-beherarik kexa kopuruak?

Beti izaten dugu jende asko, baina Gabonetako erosketen ondoren eta udako bidaietatik bueltan erreklamazio gehiago izaten ditugu.

Kasu berezirik izan duzue inoiz?

Behin garraio enpresa batek animaliak garraiatzen zituela iragaritzen zuen. Animaliak bidali zituzten, eta hilik heldu ziren.

Krisiaren eragina igarri duzue?

Lehen gutxik erreklamatzeko zuten euro batengatik. Orain bai, eta egin beharreko pausoa delakoan nago, komisio txikiekin dirutza egiten dute-eta batzuek.

OMIC kontsumitzaile bulegoa

Telef. 94 620 2707
Askatasun etorbidea 2, behea
48200 Durango
omic-mdurango@kontsumo.net

Astelehenetik barikura
09:30etik 13:30era
Eguenetan:
16:00etatik 18:30era

Durango Merinaldearen Amakomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

kontsumOBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Kontsumitzaileon eskubi-deak defendatzeaz ardura-tzen da Durango Askatasun etorbidean kokatuta dagoen OMIC bulegoa. Alazne Balentziaga zerbitzu horren arduraduna elkarrizketatzea proposatu diogu Oskar Zarrabeitia Durango Merinaldearen Amakomunazgoako presidente berriari.

Zein motatako kexak heldzen dira OMICera?

Guk kontsumo arloko gaiak lan-tzen ditugu. Ez gara autonomoen eta enpresen auziez arduratzen. Herritarrek erreklamatzeko dituzten gorabeherarik gehienak telefoniagaz, hornikuntzagaz (gasa, elektrizitatea, ura) eta garrantiekin lotuta daude.

Telefonia arloan zertaz kexatzen dira?

Alde batetik, fakturazioa txarto egin izanaz kexatzen dira batzuk. Bestetik, altak ematea oso erraza da, baina baja ematea ez hain-beste. Telefonia konpainiek egin beharko lukete beharra bezeroei bajak emateko, baina geuk egiten dugu sarritan. Beste kasu batzuetan telebistako edo Internet bidezko lehiaketetan parte hartzerakoan SMS Premium eta antzeko zerbitzuak jakin barik aktibatzen ditu jendeak, eta gero

mezu batzuk jasotzeagatik ordaindu egin behar dute; 1.500 euroko faktura heldu zaion pertsona bat izan dugu bulegoan.

Hornikuntzekin zelako arazoak sortzen dira?

Gas hornitzaile batek urtebetean ez du fakturarik pasatu, eta bat-batean denak batera fakturatu ditu. Tarte horretan BEZ portzentajea igo egin da, baina konpainiak urte osoari aplikatu dio.

Jaso ditugun kexa gehienak telefonia eta hornikuntza arlokoak dira

Zenbat erreklamazio jasotzen duzue?

Geroago eta gehiago erreklamatzeko da. 2011n 1.065 erreklamazio jaso genituen.

Batzuek fakturagaz ez badaude konforme atzera botatzen dute erreklamazio orririk bete barik. Zer deritzozu?

Faktura batez ez badaude konforme, faktura atzera botatzea ez da nahikoa. Argindarraren kasuan, kentzeagatik 70 euro

kobratzen dizkizute, eta berriro ipintzeagatik beste 70 euro. Erreklamazioa beti jarri behar da.

Arropa denden inguruan kexu izaten da hainbat jende.

Jendeak arropa erosten du, eta etxean probatzerakoan ez zaio gustatzen. Dendara doazenean balea ematen badiete dirua itzuli beharrean, haserretu egiten dira. Baina dendek ez dute zertan dirurik itzuli; eta legez, balea eman beharrik ere ez, erositako produktuak akatsik ez badu.

Spanair konpainiak hondoa jo du eta jende askok hartuta zeuzkan hegaldiak. Erreklamaziorik heldu da OMICera?

Bai, aste honetan bost lagun etorri dira erreklamazioa jartzera. Pertsona batek martxorako hegaldia hartuta zeukan. Dirua itzuliko diote, baina orain hartu duen hegaldiak 50 euro gehiago balio duenez, alde erreklamatzera etorri da.

Hegazkin konpainiek kexa asko izaten dituzte?

Kontroladoreen greba izan zenez kexa asko jaso genituen bulegoan. Erreklamazioa AENAn dago. Kaltetuei dirua itzuli diete, baina jendeak kalte-ordaina eskatzen du orain.

"Spanairren itxieraren eraginez, hainbat kexa jaso ditugu egunotan"

Erreklamazioek zer bide jarraitzen dute?

Guk enpresari erreklamatzeko diogu, eta erantzun egiten digute. Bitartekaritza ez bada lortzen, arbitrajera joaten gara, Eusko-Jaurlaritzara. Audientzia baten erantzuna loteslea da. Bestela, epaitegietara joateko aukera dago. Infrakzioen bat badago, Osasun eta Kontsumo Sailera doa, eta espediente zigortzailea ipintzen diote.

Erreklamazioak bidean geratzen dira edo batzuk aurrera doaz?

Erreklamazioen erdiei baino gehiagori arrazoia ematen diete. Protestatzeak ez du ezertarako balio gero konforme ez zauden hori erreklamatzeko ez bada.


Bulegora datozenei zer gomendio ematen diezu?

Garrantzitsuena informatuta egotea da. Oinarriko eskubi-deak ezagutzen ditugu, baina prozedura eta epeak ere ezagutu behar

DENBORAPASAK

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko 17:00ak arteko epea

	*Irudiko fruitua Kemen		Asiako penintsula Oharkabea	Euskal sindikatua
	Ez ezin Interjekzioa			
Kideak	EH-ko lurraldea			
Gaitz mota	Marokoko hiriburua			Eskas
Pl, musika tresna				
Bizkaieraz, iloba			Bokala Garaiak, aldiak	Bokala Bizkaiko herria
Lan tresna				
Oso ederrak				
Kontsonantea	Alaitasun			Bokala
Hegazti mota	Tente			Bi zati bi
			Bromoa 2	
Altzari mota				Oxigenoa
Agiri mota				
			Guztiz larritu	



Juan Pablok otsailaren 1ean 53 urte egin zituen. Zorionak guapisimo! Koadrila osoaren partez, musu handi bat!



Kimetz Barrena Etxaburuk bihar 4 urte beteko ditu. Zorionak eta ondo pasa! Aita, ama eta anai Anderren partez!



Santa Ageda bezpera egunean, **Peio Arresek** 12 urte egingo ditu. Zorionak beroenak etxearen partez!



Gaur, otsailaren 3an, **Eiderrek**, gure etxeko neska polit honek 7 urte beteko ditu jada. Zorionak eta musu handi bat aita eta amaren partez!



Aratz Intxaurragak otsailaren 5ean urtetxo bat egingo du. Zorionak eta musu handi bat etxeko guztien partez, mutil haundi!



Zorionak **Indira**, eta ondo pasatu eguna! Eskerrik asko egunero zoriotsu egiten nauzulako! Amz.



Leire Pregontegik urtarrilaren 30ean 9 urte egin ditu. Zorionak eta musu bat, lurretako laguntza partez!



Zorionak **Eleneri** 15 egunero zotz egin dugun tarta zuri egokitua zaizu. Txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako Bixente Kapanaga 9an.

	2		5		
					1
5		6	9		
	6	3		7	4
				3	5
		2	4		7
6	7			8	
8		3	5	9	
			4	2	9

		9	1	5	
		5			6
6	2				
				8	7
	1	8		4	
	3	7		2	4
		4	7		1
8	1			7	
	9				3
					4



Eskerrik asko domekan Auzorik Auzo ibilbidean parte hartu zenuten guztioi. Hamabi Herri auzo elkarte

BOTIKAK >

- Barikua, 3**
09:00-09:00
• Navarro (Artetale, 6 - Durango)
- Zapatua, 4**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
- Domeka, 5**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
- Astehena, 6**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
- Martitzena, 7**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrenonda 22 - Durango)
- Eguaztena, 8**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
- Eguena, 9**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurretan)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak.....112**
- DYA94 620 28 00**
- Gurutze Gorria94 681 09 49**
- Osakidetza94 600 72 00**
- Ertzaintza94 466 93 00**
- Suhiltzaileak112**
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
- Bizkaibus94 448 40 80
- Pesa902 10 12 10
- Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
- Matiena606 459 988
- Durango Geltokia946 811 001
- Elorrio Geltokia946 820 040
- J.L. Uriarte670 402 002
- I. Estebez670 678 273
- M Galeano670 409 330
- lurretan946 201 565
- Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
- Atxondo94 682 10 09
- Berriz94 682 45 84
- Durango94 603 00 00

- Elorrio94 658 27 12
- Garai94 681 63 93
- lurretan94 620 12 00
- Izurtza94 681 35 48
- Mallabia943 17 14 61
- Mañaria94 681 89 98
- Otxandio945 45 00 20
- Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

- Abadiño94 621 55 33
- Berriz94 682 40 36
- Durango94 603 00 10
- Elorrio94 682 02 18
- lurretan94 620 08 88

EGURALDIA >

- 4° **3° BARIKUA** ☁️
- 4° **5° ZAPATUA** ☁️
- 3° **8° DOMEKA** ⚡️
- 2° **7° ASTELEHENA** ☁️
- 1° **7° MARTITZENA** ☁️

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
- Tomatea 3 euro/kg
- Porruak 1,80 euro/tx
- Kalabaza 2,50 euro/kg
- Azenarioak 1,50 euro/tx
- Azelgak 2 euro/kg
- Romaneskua 3 euro/kg
- Indabak 15 euro/kg
- Arrautzak 3,60 e/dozena
- Idiazabal gazta 16,50 e/kg
- Ogi zuria 3,30 euro

SOLUZIOAK

8	2	9	8
5	7	6	4
3	5	1	7
1	7	9	8
7	9	8	5
6	7	8	5
5	2	4	3
5	5	3	5
6	6	7	6
2	4	1	7
6	9	8	5
1	6	3	9
4	2	8	4
2	1	7	8
4	8	6	2
3	1	2	1
5	6	5	3
7	2	8	1
9	5	6	3

O	T	I	●	A	T	K	A
●	A	I	K	L	U	V	●
R	B	●	V	O	Z	O	Z
A	●	Z	O	P	●	G	●
K	V	●	R	O	T	O	D
S	E	B	V	N	V	L	●
A	●	A	●	A	B	O	L
K	V	A	K	V	A	M	●
●	I	R	E	R	R	O	G
A	B	A	R	A	●	H	●
L	A	H	V	●			
E	D	A	V	●			
●	A	●	U	●			

Abadiñoko San Blas Azokako herri-kirol jaialdian 175 kiloko harria altxatu gura du gaur Urdax Magunazelaia, errekor berri bat ezarritz

"15 urte egin aurretik 180 kiloko altxatu gura dut"

Otxandion bizi da baina abadiñar sentitzen dela dio, handik dator-eta. Harri-jasotzen marka guztiak apurtzen dabil 14 urteko mutil gazte hau, eta asmo berriak ere baditu. Indartsua da Urdax; indarra daukate bere muskuluek, eta bere buruak ere bai. Plazagizona dela erakutsi digu gure galderari erantzutean.

Zelan murgilduzinen harri-jasotze munduan?

Batez ere, etxean herri-kiroltarako afizio handia beti egon delako hasi nintzen, bederatzirte urte gaz. Lehengusua ere ibilia zenez, beti eduki nuen proba egiteko gogo. Hasi eta gustatu egin zitzaidan. Jolas zen hasieran, baina orain kirol munduan hartuta aurrerantzatzenoa, apurka-apurka.

Dagoeneko bost urte daramatzazu...

Eduki ditut gorabehera batzuk ere. Lehenengotan aitagaz ibili nintzen entrenatzen. Baina aita hil zitzaidan, eta Zelaigaz-eta hasi nintzen gero. Oso gustura nabil eurekin.

Makina bat errekor ere ondu duzu...

2007an 75 kiloko harria altxatu nuen. 10 urte gaz 100 kiloko marka ondu nuen, eta 11 urte gaz 114 k o a , Otxandio-ko plaza n . Urteo-

tan igotzen joan naiz, eta iazko urrian 170 kiloko harria berdindu nuen Algortan.

Zein dazure hurrengo helburua? Zer marka daukazu begiz jota?

15 urte egin baino lehenago, uda partean-edo, 180 kiloko altxatzea. Ikusiko dut, oraindik asko geratzen da-eta; ondo prestatu beharko da.

Ba al daukazu gogoko harririk?

Era askotako harriak daude, eta bakoitza erraztasun handiagoa ematen dionera moldatzen da. Batzuek txikiak gura izaten dituzte; zilindrikoa edo kubikoa, esaterako. Beste batzuek handiagoak; errektangularrak, adibidez. Nire kasuan, zilindrikoa da ez zaidana ondo etortzen, baina berez harri guztiak gustatzen zaizkit.

Nor dazure erreferentea harri-jasotzaileen artean?

Denerik dago, eta, gainera, bakoitzak bere helburu eta markak dauka. Esaterako, Izetak kubikoan erakutsi izan du gaitasuna, Goenatxok ere kubikoan baina pisu handietan, Zelaik harri txikiekin jasoaldi asko egin ditu... Ez daukat erreferente bat bakarrik.

Mallabiko taldeagaz zabiltza orain entrenamenduetan.

Hiru gazte gabiltza batera, eta gustora jarduten dugu taldean. Lagunekin-eta beste gauza bat da. Gainera, bata besteari gauzak erakusten dizkiogu.

Zelakoak dira zure lan-saioak?

Bi entrenamendu mota egiten ditut, normalean. Bat arnasa lan-

tzekoa, jasoaldi asko egin eta gorputzari astindua ematekoa. Beste gorputzera indarra ekartzeko, harri handiagaz.

Zaindu ere egin beharko duzu apur bat, ezta?

Marka bat egiterakoan prestatu beharra izaten duzu, bai. Ni errugbian ere banabil, eta tarteka errugbia utzi behar izaten dut, marka egin aurreko astean-edo. Muskuluak lasai eduki behar dira hala-koetan, kargatu barik. Bestela, ez zaude %100ean harria altxatzerakoan.

Errugbian ere bazabiltza, beraz. Zer kirol duzu gurago?

Biak datozkit ondo, eta ondo bateratzen ditut, antzekoak dira-eta. Errugbiak arnasa edukitzen laguntzen dit harria altxatzeko; oso gustura nabil. Harriak gehiago tiratzen nau, edozelan ere.

Zer sentitzen duzu harria altxatzea lortzerakoan?

Hileetan eta hileetan prestatzen egon zarena betetzea esan gura du, eta oso momentu pozgarria da. Nahiz eta jakin entrenamenduetan altxatu duzula, plazak beste giro eta emozio bat ematen du; baita nerbioak ere.

Eta altxatzen ez duzunean?

Oraingoz ez zait gertatu ez altxatzea, eta gero ere ez pasatzea itxaroten dut.

Aurrera begira ere ikusten al duzu zure burua kirol honetan?

Oraingoz oso gogotsu nabil, eta lesiorik-eta ez badaukat jarraitzeko asmoa daukat.

Zer lan egingo dozu Abadiñoko jaialdian?

Abadiñon marka berri bat egiteko asmoa daukat; 175 kiloko harria altxatzea gura dut. Azkenean, Abadiñokoa naiz, eta gustura jasotzen dut harria nire herrian.

Urdax Magunazelaia •

14 urte dauzka; Otxandion bizi da

Juanito Gallastegi Abadea



Atzerakoiak

Ez dot telebistaren aurrean mahi-inguru eta iritziak entzuten ordu asko galtzen.

Ondo jantzita eta orraztuta egoten den eta itxuraz ertz batekoa be ez den bati hauxe entzun deutsat, jokera eta taldeak eta alderdiak sailkatzean: eskumako ertzekoan sailean, beraz, atzeratu, itxien, antzinatetan geratuta dagozanen... artean jarri behar dira katolikoak.

Bai gero? Egia da katolikoan artean eskumatarrak, ertzekoak, atzeratuak... dagozala, ugariegi behar bada, baina ukatu ezina da bestetakoak be badirela, eta ez gitxi. Jesusen jarraitzaile izateak ez gaitu bultzatzen hori izatera, gaurkotasunez baterik egotera eta munduko arlo guztietan iritzi zabal zabalekoak izatera baino. Zein beste ondoren izan behar dau gizaki guztiak Jainko seme-alabat hartzeak eta itxaropen eraginkorra ezin bestekotzat izateak?

Historian zehar ez dela holan izan? Ezin ukatu, sasoi bakoitzeko bereiztasunak kontuan izanik, beti izan direla batekoak eta besteokoak.

Gaur egun be holan ez dela? Larregi ikusten dira, maila guztietan, atzeratuak, itxiak, eskumako ertzekoak diren eliztarrak. Larregi benetan! Baina itsua izan behar da aurrerakoiak, iritzi edegikoak, gaurgaurkoak diren eliztarrak ere ez ikusteko.

Ezin daiteke arrazoirik jarri barik orokorrean sailkatu anitza den taldea

Ezin daiteke mikrofonoaren aurrean gaurkotasun itxura emonez eta jakitun aurpegia jarriz, beste barik, arrazoirik jarri barik, orokorrean sailkatu anitza den taldea. Ugariak dira holako alkarrizketetan iritzi merkeegiak, baina ez dakit nongo jakituriak eragindakoak balira lez saltzen direnak.

ESKAINNTZA AKADEMIKOA:

- 0-5 urte - HAUR HEZKUNTZA
- 6-11 urte - LEHEN HEZKUNTZA
- 12-16 urte - DBH
- BATXILERGOA - Ibaizabal Ikastolan
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ZERBITZUAK

- Jantokia
- 3 urtetik aurrera: zaintza zerbitzua
- Autobusa
- Eskolaz kanpoko jarduerak ikasturtean eta udan

PROIEKTU PROPIOAK

- Eleaniztasuna
- Eskola 2.0 IKASYS
- Antzerkia
- Euskaraz bizi

KURUTZIAGA IKASTOLA



ikastolenelkartea

ibaizabal kooperatiba Elkartea